



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko maiatzaren 24a

56. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

#### G SAILA:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Kontuen Ganberak Nafarroako Odol Banku eta Odol-transfusioen Zentroaren aholkuen 2011ko betetze-mailari buruz emandako fiskalizazio-txostena ikusirik (2. or.).
- Kontuen Ganberak Nafarroako Osasun arloko gastuak 2001-2011 bitartean izandako bilaka-eraz emandako fiskalizazio-txostena. (10. or.).

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Kontuen Ganberak Nafarroako Odol Banku eta Odol-transfusioen Zentroaren aholkuen 2011ko betetze-mailari buruz emandako fiskalizazio-txostena ikusirik**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko maiatzaren 4an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Nafarroako Odol Banku eta Odol-transfusioen Zentroaren aholkuen 2011ko betetze-mailari buruz emandako fiskalizazio-txostena ikusirik, ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2012ko ekainaren 4an.

Ganberako burua, Alberto Catalán Higuera

### **Kontuen Ganberak Nafarroako Odol Banku eta Odol-transfusioen Zentroaren aholkuen 2011ko betetze-mailari buruz emandako fiskalizazio-txostena ikusirik**

#### **AURKIBIDEA**

I. Sarrera (2. or.).

II. Nafarroako Odol eta Ehun Bankua (3. or.).

III. Helburua eta norainokoa (6. or.).

IV. Ondorioak (6. or.).

Osasuneko Kontxeilariak behin-behineko txostenari aurkezturiko alegazioak (9. or.).

Behin-behineko txostenari aurkezturiko alegazioei Kontuen Ganberak emandako erantzuna (9. or.).

#### **I. SARRERA**

2009ko martxoaren 2an, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak eskatuta, Kontuen Ganberari honako hau eskatzea erabaki zuen:

“Urteko txosten bat egin dezan, bost urtez jarraian, erakunde horrek Nafarroako Odol-transfusioen eta Zelulen eta Ehunen Zentroari buruz eginiko fiskalizazio-txostenean jasotako gomendioen jarraipena egite aldera”

2010eko urrian Kontuen Ganberak CTSNren aholkuen betetze-mailari buruzko txosten bat egin zen; hartan adierazten ziren ondorioen arabera, hasierako 56 aholkuetatik 52 inplantatzen ari ziren, eta aurreramenduak ari ziren egiten, handiagoak ala txikiagoak, egiaz aplikatzeko. Betetze-maila hori arrazoizkoa zela jotzen zen, kudeaketari buruzko aholku horiek ezartzeak zenbateko epea eskatzen zuen ikusita. Oraindik abiarazi gabe zeuden lau aholkuak puntu hauei buruzkoak ziren:

“... 2. Ez da hasi ondokoei buruzko bost gomendioen ezarpena:

- Langileak. Ez dira ezarri emaitzen arabera helburuak, eta ez dira langileak helburuak betetzearen arabera ebaluatu. Hala eta guztiz ere, Kontuen Ganberak uste du ekintza horiek Foru Komunitateko Administrazio osoko langileen kudeaketaren erreforma-prozesu batean sartu behar direla.

- Laborategia eta analisisia. Histokonpatibilitateko eta Biologia Molekularreko arloa definitu da eta 2010etik emaitzen determinazioak baizik ez dira egiten; gainerakoak Nafarroako Ospitaleguneko unitate batean egiten dira, nahiz eta oraindik ere emaitzen determinazio horien emaitzak E-Delphyn aplikazioan sartzeko zain egon.

CTSNren eskumen-esparrua gaintuta, oraindik ere ez dira ondorengo gomendioak aplikatzen:

- Nafarroako Foru Komunitaterako “zelulen eta ehunen” banku baten eginkizunak zentralizatuko dituen organismo edo zerbitzua sortzea. Horri dagokionez, Hemoterapia Planean ehunak biltzeko gordailuei buruz eta haiek CTSNan zentralizatzekeo jarduera zehatzei buruz aurreikusitako azterlana egin da.

- Adona elkartearekin lotutako odol-emateei buruzko kontusailak ez dira sartu zentroko aurrekontuan. Kontusail horiek oraindik ere Osasun Departamentuari atxikita daude eta berak kudeatzen ditu...”

Txosten hau osatzeko asmoz, 2012ko urtarrilaren 23an iradokizun hauek erregistratzen dira Kontuen Ganberan, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak eginik:

- 20/2010 Foru Legearen, Nafarroako Foru Komunitateko Odol eta Ehun Bankua entitate publikoa (NOEB) sortzekeoaren betetze-maila aztertzea.

- Giza Antigenu Leukozitarioen (HLA) probak egiten dituen immunologia-laboretegiaren analisia.

- HLA probak NOEBen egiteak eta 2009an eta 1010eko urtarrilean eta otsailean egiteko bidali ziren kanpoko enpresetan egiteak dituen kostuen hilabetez hilabete informazioa, Osasun Departamentuak parlamentu-talde honi emana, berrikus-tea.

Hori dena kontuan hartuta, Kontuen Ganberaren 2012rako Jarduera Programan NOEBen aurreko txostenetan emandako aholkuen betetze-mailari buruzko txosten bat egitea sartzen da.

Kontu-ikuskaritzako bi teknikariz eta kontu-ikuskeri batez osatutako talde batek egin zuen landa-lana 2012ko otsailean eta apirilean. Era berean, Kontuen Ganberaren zerbitzu juridikoen, informatikoen eta administratiboan laguntza izan dugu.

Txostena lau epigrafetan dago banatuta, sarre-ra hau barne. Bigarren atalean NOEB erakundearen eta haren jardueraren datu orokorrak adierazten dira; hirugarren atalean, egindako lanaren helburuak eta norainokoa; eta laugarrenean lan honetatik atera diren ondorioak.

Eskerrak eman nahi dizkiegu NOEB erakunde-ko eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko (O-NOZ) langileei, lan hau egiteko emandako laguntzarengatik.

## II. NAFARROAKO ODOL ETA EHUN BANKUA (NOEB)

20/2010 Foru Legeak NOEB erakunde publikoa sortzen du eta transfusioen giza zelulen eta ehunen sarea sortzen du Nafarroan, 2010eko abenduan.

NOEB erakundeak Nafarroako Ospitalegunean du egoitza, eta O-NOZeko Laguntza Espezializatuko Zuzendaritzaren mende dauden gainerako zentro publikoen izaera eta lege-erregimen berbera du.

Erakunde honen helburu nagusia, 20/2010 Foru Legeak dioenez, giza odol- eta giza zelula, ehun eta organoetatik eratorritako produktuen osasun-premiei erantzutea da, eta orobat osasun-sare publikoaren bai osasun pribatuaren eta itunduaren esparruan, eta produktu horiek lortzea, biltegiratzea, kudeatzea eta hornitzea bermatuko du, unean uneko eskuragarritasunaren arabera, bai eta Transplanteen Erakunde Nazionalarekiko koordinazioaz arduratzea ere.

NOEBen jarduera nagusiak protokolo jakin baten arabera prozesu bati jarraitzen dio: odol-emailei zentroan bertan edo horretarako dagoen autobusean odola atereaz hasten da, odol-osagaien zatiketa eta bereizketa egiten da, ateratako produktuak biltegiratzen dira eta banatu egiten dira. Horrekin batera, bada beste jarduera bat odol-emaile berriak egiteko edo lehendik daudenei zentrorra joan daitezzen deitzeke.

Odol- eta ateratzen diren produktu nagusiak odol osoa, hematite-kontzentratua, plaketa-kontzentratua eta plasma fresko izoztua dira. Horrez gainera, geroz eta gehiago ateratzen dira, odol-plasmatik, hemoderibatuak edo medikamentuak, terapietan asko erabiltzen direlako. Produktu horiek lortzeko prozesua enpresa pribatu bakar batek egiten du Espainiako estatu osoan.

Produktu horiek geroz eta eskari handiagoa dute, eta NOEB eskari horiei erantzuten saiatzen da, ateratzen diren produktu horiek epe jakinetan iraugitzen direla eta epe jakin baten barruan kontsumitzen ez badira bota egin behar direla jakinik.

Azkeneko bost urte hauetan, hauek dira NOEBaren oinarritzko jarduerak, O-NOZen txostenetan emandako datuen arabera:

- Emaileen kopurua ehuneko 58 handitu da aztertzen ari garen epe honen barruan, ondoko koadro honetan ikusten den bezala:

Kontzeptua	2007	2008	2009	2010	2011	2011/2007 urteetako aldea
Erregistratutako emaile berriak (lehenbiziko ematea urte barruan)	1.081	1.366	1.347	1.623	1.713	% 58,46
Erregistratutako ohiko emaileak (urtean eman zuten, eta gutxienez behin azken bi urteetan)	12.757	12.658	12.844	12.768	12.497	-% 2,04
Erregistratutako emaile ezagunak (urtean eman zuten, eta 2007 baino lehen noizbait eman dute)	1.021	891	1.097	955	896	-% 12,24

• Emaile hauei esker 2007-2011 bitartean emaitza arrunten kopurua mantendu egin da, eta ehuneko biko emendiotxo bat izan du:

Kontzeptua	2007	2008	2009	2010	2011	2011/2007 aldea (%)
Odol-emate arruntak	26.475	26.555	26.743	26.631	26.933	% -2
Autotransfusiorako odol- emateak	1.019	1.005	960	826	949	% -7
Egindako aferesiak	3.254	3.471	3.427	3.101	1.506	% -54
Odol-emateak guztira	30.748	31.031	31.130	30.558	29.388	% -4

• Aipatutako odol-emateen ondorioz izandako odol-osagarrien produkzioa eta zatiketa honela banatzen da erabilitako teknikaren arabera:

Produktuak lortzeko teknika	2007	2008	2009	2010	2011	2011/2007 aldea (%)
Osagaiak Zentroan bereizita						
Hematie-kontzentratua	25.970	25.979	26.116	26.092	26.655	% -3
Plasma fresko izoztua	25.959	29.374	26.099	26.086	26.615	% -3
Plaketen pool-ak	-	-	53	637	1.962	-
Aferesi bidez lortuak						
Plasma-unitateak multiosagaien aferesi bidez	2.603	2.657	3.020	2.668	1.465	% -44
Plasma-unitateak plasmaferesi bidez	594	735	327	370	168	% -72
Plaketa-kontzentratuzko unitateak multiosagaien aferesi bidez	2.674	2.716	3.058	2.659	1.242	% -54
Hematie-unitateak multiosagaien aferesi bidez	209	190	283	171	68	% -67
Eritroferesi bidez lortuak						
Hematie-unitateak	98	66	50	42	50	% -49

NOEBn odol-osagaien bereizkuntzaz lortzen den produkzioa ez da askorik aldatu aztertu den aldi honetan; ehuneko hiruko emendio arin bat izan du. Aferesi eta eritroferesi bidezko produktuen ekoizpenak urritzeko joera izan du.

• Aipatu diren produktu horiek guztiak Nafarroan edo Foru Komunitateaz kanpo banatzen dira. Beste batzuetan gerta daiteke beste autonomia-erkidego batzuek hornitu behar izatea Nafarroa produktu horiez. Jarduera horiei 2010 eta 2011ko ekitaldietan dagozkien kopuruak hauek dira:

	Autotransfusi orako odola, guztira		Autotransfusi orako hematiek		Hematiek		Random plasma koarentenatua		Plasmferesi bidezko plasma sekurizatua		Plaketen pool-ak		Feresi bidezko plaketak		Plasma inaktibatua		Krioprezipitazio gabeko plasma	
	2010	2011	2010	2011	2010	2011	2010	2011	2010	2011	2010	2011	2010	2011	2010	2011	2010	2011
Nafarroan banatuak	822	922	5	0	24.597	26.278	203	148	2.703	2.397	511	1.837	2.485	1.164	152	6	77	0

Nafarroatik kanpo banatuak	ARAGOI		Madril		ERRIOXA		EAE	
	2010	2011	2010	2011	2010	2011	2010	2011
Hematiek	184	0	706	0	2	0	25	0
Plaketak	3	6	0	0	0	0	13	0
Plasma fresko sekurizatua	0	40	0	0	0	0	0	4

Nafarroaz kanpotik ekarriak	ARAGOI		KATALUNIA		KANTABRIA		ERRIOXA		EAE		VALENTZIA	
	2010	2011	2010	2011	2010	2011	2010	2011	2010	2011	2010	2011
Hematiek	0	2	4	0	0	0	0	0	0	5	2	0
Plaketak	29	14	0	0	0	0	25	5	45	17	0	0
Plasma fresko sekurizatua	30	0	100	0	139	0	0	0	79	0	20	0

• Azkenik, hemoderibatuak lortzeko aipatutako enpresa pribatura bidaltzen diren plasma freskozko litroak ere lortzen dira. Hona 2007-2011 aldiari dagozkion datuak:

Kontzeptua	2007	2008	2009	2010	2011
Bidalitako litro kopurua	6.583	6.386	6.448	6.089	6.517
Ateratako hemoderibatuak gramotan					
Albumina	205.070	96.730	191.200	186.640	167.260
Inmunoglobulina	28.150	12.410	25.860	26.080	17.520
VIII faktorea (U.I)	1.127.000	574.000	362.000	736.000	1.061.000
Antitronbina AT III (U.I./gr.)	0	150.000	300.000	d.ez	0
Alfa 1 Antitripsina	803	0	417	560	467

Hemoderibatu horiek gehienak ospitale publikoen sarean banatzen dira, eta soberakinik gertzen baldin bada, ospitale pribatuetara saltzen dira.

### III. HELBURUA ETA NORAINOKOA

Parlamentuko eskaerari jarraituz, hauek dira txosten honen helburuak:

- Ganbera honek 2008ko azaroko txostenean eman eta 2010eko urrian egindako jarraipenaren arabera artean hasi gabe zeuden lau aholkuak zenbateraino betetzen diren aztertzea.

- Betetzen hasita zeuden aholkuetan izan diren aurreramenak esanguratsuenak aztertzea.

- NOEB sortzen duen 20/2010 Foru Legearen betetze-maila aztertzea.

- HLA probak egiteaz arduratzen den immunologia-laborategiaren egoera aztertzea.

- HLA probak NOEBen egiteak eta 2009an eta 2010eko urtarrilean eta otsailean egiteak izan zituena kostuei buruzko informazioa, Osasun Departamentuak parlamentu-talde honi emana, aztertzea.

Txosten honen norainokoa Kontuen Ganbera honek 2008an egindako txostenean emandako aholkuak izan dira, 2010eko gure txostenaren ondorioak, 20/2010 Foru Legea, immunologia-laborategia sortzeko lanarekin zerikusirik duten administrazio prozesu guztiak eta HLA probak egiteko bidali zaizkien kanpoko enpresak ere kontuan hartuta.

Lana Espainiako Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauari jarraituz gauzatu da, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun prozedura tekniko guztiak bildu dira.

### IV. ONDORIOAK

Egindako lanaren norainokoa eta metodologia ikusita, honako ondorioak atera dira:

#### 1. Betetzen hasi gabeko aholkuak

Zuzenean NOEBen mende dauden aholku guztiak betetzen hasita daudela esan daiteke. Ganberak 2010ean aholku horien betetze-mailari buruz emandako txostenaren arabera oraindik ere betetzen hasi gabe zeuden aholkuen egoera honako hau da:

- **Langileak.** Ez dira zehaztu helburuak eta, horrenbestez, langileak ez dira ebaluatzen helburu horien arabera. Hala eta guztiz ere, Kontuen Ganberak uste du aholku horiek Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio osoko langileen kudeaketaren erreforma osoa egiteko plan baten barruan beharko lirakekeela kokatu.

- **Immunologia-laborategia.** HLA probak egiteko ardura duen laborategia dagoeneko ez da NOEBaren parte. Emaleen determinazioen emaitzak REDMOn (Espainiako Hezur-muin Emaleen Erregistroan) sartzen dira. Horregatik, bada, aholku hori betetzat ematen da.

- **Erakundea sortzea.** 20/2010 Foru Legeak NOEB erakunde publikoa sortu zuen eta Nafarroako Giza Zelulen eta Ehunen Transfusio Sarea antolatu zuen; horrenbestez, betetzat ematen da aholkua. Geroago deskribatzen da arau horren analisia.

- **ADONA aurrekontuko kontusailak.** NOEBen eskumenez kanpo, NOEBen aurrekontuan oraindik ez dira sartu ADONArekin sinatutako hitzarmenarekin zerikusirik duten emaitzengatik aurrekontuko kontusailak. Kontusail horiek oraindik ere Osasun Departamentuari atxikita daude eta hark kudeatzen ditu.

### 2. Martxan dauden aholkuak

Lehendik abiarazita zeuden aholkuei dagokienez aurreramentu handiak egin dira. Hona garrantzitsuenak:

- 2009ko Hemoterapia Planak, hartan sartuta zeuden helburuak eta ekimenak lortu egin ditu, oro har, NOEBek 2010eko azaroan plan horri buruz egindako jarraipen txostenean esaten den bezala. Besteren artean aipatzekoa da emaleen genomak tipifikatzeko laborategiko teknika berri bat sartu izana; teknika horrek plaketetan patogenoak indargabatzeko ezarri den prozedura berriarekin batera, segurtasun handiagoa eskaintzen baitu transfusio-erako.

- NOEBen eta Nafarroako Ospitalegunean E-Delphyn informazio eta kudeaketarako sistema bateratua ezartzea burutu izanak, stocken kudeaketa nabarmen hobetzea eragin du. Hain zuzen ere, ospitale bakoitzean eta NOEBen bertan zer stock dauden une bakoitzean jakiteko aukera ematen baitu, eta horri esker hobeto planifika daitezke erakunde horietako bakoitzak dituen premiak. Era horretan, ospitale bakoitzak egiaz behar dituen produktuak baizik ez ditu eskatzen, eta NOEBek zehazkiago aurreikus ditzake premiak, eta alda ditzake bideratzen dituen zenbait ekimen, hala nola autobusaren irteeren eta opor-bezperetako

eta San Ferminetako kanpaina berezien programazioa.

- Egin den kostuen azterketak erabakiak hartzeko modua hobetzen laguntzen du. Hain zuzen ere, halako moduan ari dira optimizatzen eskura dauden baliabideak non aurrekontu urriago batez produkzio handiagoa ari baita lortzen, utzikinen proportzioa txikiagotzen, produktibitatea handitzen ari denez, eta, teknikarik eta produkturik garestienak atzemanik, produktu horiek beste bideren batzuetatik lor daitezkeen aztertzeko modua ematen duenez. Horri guztiari esker, NOEBek aukera izango du, aurrekontuan horretarako zuzkidura bereizirik gabe, 20/2010 Foru Legeak ematen dion Ehun Bankua izateko eginkizuna bere gain hartzeko.

Azterketa honen bidez beste zenbait alderdi ere azter daiteke, hala nola emaitzek zenbat denbora eman behar izaten duten zain, edo langileak lortzen diren produktuen kostuez jakitun izatea.

Kostuen azterketaren emaitzek erakusten dutenez, zenbait produkturen kostuak O-NOZek ezarritako dauzkan tarifak baino txikiagoak dira.

Ganbera honen iritzian, azterketa hau osatzeko oraingo honetan sartu ez diren zenbait gasturen azterketa ere egin beharko litzateke, hala nola Lehendakaritza Departamentuak (ibilgailu-parkeak) ordaintzen dituen odol-emaitzetarako unitate mugikorrenak (autohemotekarenak), amortizazioak edota ADONAREkiko hitzarmenari dagozkionak, era horretan produktu bakoitza zenbat kostatzen den zehazteko. Guztirako kostu hori erabili beharko litzateke O-NOZek produktu horien tarifak zehazteko, zeren, aplikatzekoa den araudiaren arabera, tarifa horrek ezin baitu izan produktuen kostua baino altuagoa eta NOEBek ez du irabazirik atera behar hortik, ehun-emaitza altruista denez.

- Hona aipatzeko beste aurreramenak edo egitate batzuk:

a) Kalitate-sistemaren informatizazioak eragin duen dokumentazioaren kudeaketarako sistema berri bat ezarri izana; orain sistema horretara Nafarroako Ospitalegunetik, Lizarrako García Orcoyen Ospitaletik eta Tuterako Reina Sofia Ospitaletik sar daiteke.

b) NOEBen jardueraren jarraipenezko txostenak egin izana eta zentroko arduradunek txosten horiek ezagutzera.

c) Zentroa banatuta dagoen alor bakoitzerako, 2012rako eta 2013rako jardueraren ildo estrategikoak zehaztuz, ekintza-plan bereziak prestatu izana.

d) Kalitatea Kudeatzeko Sistemaren ziurtagiria, AENOREk 2011n 2012ko uztaila arteko indarrez emana, berritu izana.

e) 2011n CAT Fundazioaren ziurtagiria (odol-transfusioetan, terapia zelularrean eta ehun-terapien kalitatea ziurtatzeko ardura duen erakundea) berritu izana, 2014 arteko indarrez.

### 3. 20/2010 Foru Legearen betetze-maila

Une honetan 20/2010 Foru Legea aldatzeko proposamen bat dagoenez, esan daiteke, egiaz aplikagarri diren puntuetan bederen, betetzen ari dela arauak agintzen duena, berezitasun hauekin, hala ere:

- Legean hiru batzorde sortzea aipatzen da. Hemoterapiarena 1998az gero bazen eta funtzionatzen jarraitzen du; ehunen eta organoen batzorde teknikoak oraindik sortu gabe dago (organoen aipamena kendu egin beharko litzateke, nolahi ere, legea aldatzeko proposamenaren arabera), eta emaitzen eta transplanteen kontsulta-batzordea ere ez da eratu, legea aldatzeko proposamenak batzorde hori desagertzea aurreikusten duenez.

- Ehunei dagokien eginkizunari dagokionez –legearen arabera NOEBen ardurapekoa da–, bideratu ahal izateko bete behar diren izapideak egiten hasita dago. Osasuneko Zuzendari Nagusiaren apirilaren 20ko 700/2012 erabakiak baimena eman zion NOEBeri ehunak biltegian edukitzeko; lekua egin da horretarako behar diren baliabideak jartzeko, baliabide horiek 2012ko aurrekontuaren kontura erosi dira eta jarduera-protokoloak edo prozedurak idazten ari dira (ehunak ateratzeko, jasotzeko, prozesatzeko eta analizatzeko, biltegian edukitzeko eta banatzeko lankidetzan jardutea), eta eginkizun horretarako izendatutako langileak protokolo eta prozedura horien probak egiten ari dira. 2012 barruan begi-korneetatik eratorritako ehunekin lan egiten hasteko asmoa dago.

Aipatutako legea aldatzea Osasun kontseilariaren 15/2011 arau horren betetze-maila aztertzeko Foru Agindua proposatzen du. Batzorde horrek 20/2010 Foru Legea puntu hauetan aldatzeko foru lege baten aurreproiektua prestatu du: NOEB berriro Nafarroako Ospitalegunearen mende jartzea, organo eta transplanteen koordinazioa bere esku hartzearen aipamen oro kentzea, hori NOEBen eskumeneko eginkizuna ez dela iritzirik, eta beste zenbait aldaketa txiki egitea, hala nola artikulatu jakin bat edo beste kentzea, seroteka edo plasmoteka bat mantentzeko eginkizuna sartzera edo NOEBen zuzendaria izendatzeko prozedura aldatzea.

Txosten hau idazten den unean, aurreproiektu hori tramitatzeko bidean dago.

#### **4. Immunologiako laborategiaren egoeraren analisia**

Immunologiako laborategia, HLA probak egiteko ardura duena eta gaur egun Nafarroako Ospitaleguneko A Hematologia Zertitzuari atxikita dagoena, Nafarroako Ospitaleguneko laborategiak bateratzeko zain dago, langile gehiago edukitzeko eta poliki-poliki gaur egun kanpoko enpresetara bidaltzen den lana bere esku hartu ahal izateko.

Laborategi hori NOEB barruan zegoen hasieran; bi leku ditu, lehen Nafarroako Ospitaleguneko B Mikrobiologia Sailak erabiltzen zituenak.

2011ko urtarrilaz gero immunologista bat du; immunologista horrek 2011ko martxoan laborategiak funtzionatzen hasteko behar dituen premiak zehazten dituen proposamen bat aurkeztu zuen. 2011ko azaroan horretarako behar den lekua egokitzen da, NOEBen ekipamendua leku berrira eramaten da, eta hitzarmen markoa sinatzen da kanpoko enpresekin, laborategiko produktuak eta produktu kimikoak hornitzeko, eta munta handirik ez duen inbertsio bat egiten da.

Laborategi horren jarduera NOEBen egiten zen 2010eko martxoa arte. 2009ko Hemoterapia Planari jarraituz, eginkizun hori kentzea erabakitzen da, egiten zen lan gehiena beste zerbitzu batzuetarako egiten ziren gaixotasunen diagnosiak izaten baitziren, eta ez NOEBeko emaitzentzat.

2010eko martxotik aurrera, txosten hau idazten den unea arte, gaixoen HLA probak kanpoko bi enpresetara bidaltzen dira egiteko, egin behar den probaren arabera, NOEBen atzeratzen diren hezur-muin emaitzen salbu, haiek zentro honetan egiten baitira oraindik. 2011n, NOEBen atzeratzen diren hezur-muin emaitzen laginak analizatu gabe metatzen dira, harik eta 2011ko azaroan immunologiako laborategia bere leku berrian funtzionatzeko prestatuta dagoen arte.

Laborategiak aztertuak ditu dagoeneko metatuta zeuzkan lagin guztiak eta hezur-muin emaitzez bildu diren proba berriak aztertzen ari da. Horrez gainera, aldi batez laborategi honetarako izendatutako langilea transplante alogenikoetarako adosgarritasun-probak eginez aritu da, proba horiek aldi berean kanpoko enpresa batera bidaltzen zirela, era horretan teknika hobetuz joateko. Gaur egun proba horietako batzuk ez dira bidaltzen kanpoko enpresa horretara, eta laborategi honetara bidaltzen dira bakarrik.

Nafarroako Ospitalegunearen Zuzendaritzak jakinarazi digunez, O-NOZ Nafarroako laborategi

klinikoak zentralizatzea aztertzen ari da; laborategi horien artean aurkitzen da immunologiako laborategia ere. Laborategi zentral hori Ikerketa Biomedikorako Zentroan kokatuko da, eta aurreikusita dago immunologiako laborategirako lekua gordetzea eta laborategi horrek behar izango dituen langile teknikoan lanpostuak betetzea ere. Baliabide horiek edukiz gero, pentsa daiteke gaur egin kanpoan egiten den lana, gaur egun laborategiak duen hornidura kontuan hartuta, bertan egin ezin daitekeena, poliki-poliki bere gain hartuz joatea. Hain zuzen ere, maiatzaren 2an argitaratu da APRO 60/2012 Hitzarmen Markoa: proba analitiko jakin batzuk O-NOZen laborategi klinikoetan egiteko behar izango diren erreaktiboak, materiala eta ekipamenduko hornidura emateko. Hitzarmen horretan gaur egun kanpoko laborategietara bidaltzen diren zenbait analisi bere baliabidez egiteko behar diren hornikuntza bereziak aipatzen dira.

#### **5. Immunologiako laborategiaren kostuei buruzko informazioa**

Osasun Departamentuak NOEBen eta kanpoko enpresetan egindako proben hilabeteroko kostuei buruzko informazioak kalkulu-akats batzuk ditu. Ganbera honen iritzian, aurkeztu diren datuen azterketa zorrotz bat egin ahal izateko, gastuak jarduerekin lotu beharko liriateke, proba mota bakoitzak baliabide-kontsumo desberdina eskatzen baitu, eta kanpoko enpresetara bidaltzen den proba bakoitza nolakoa den, emaitza desberdina izan daiteke.

Osasun Departamentuak emandako informazioaren arabera, NOEBen HLA probak 2009ko urtarriletik 2010eko otsailera bitartean egiten dituen laborategiaren gastuak 745.728 eurokoak dira. Laborategi horrek egindako lanaren ehuneko 35 hezur-muin emaitzak erregistratzeko probatarako izaten da eta gainerakoa, ehuneko 65, beste zerbitzu mediko batzuentzat egindako probei dagokie. Proba hauek direnez NOEBen egiten ez direnak, alderaketak egiteko gastuen portzentaje hori erabili behar dela iritzi da. Horren emaitza: NOEBen beste zerbitzu mediko batzuentzat egindako probei egotzi zaien gastua, 484.723 euro.

Gastuetan 2008ko faktura bat sartu dela ikusi da, baina ez litzateke hor konputatu behar, aztertzen den aldiaz kanpoko delako. Oker hori zuzenduta, 443.116 eurora jaitziko litzateke kopurua.

Kanpoko enpresei egotzitako kostuei dagokienez, Osasun Departamentuaren arabera 260.927 euro dira, 2010eko martxotik 2011ko urrira bitarteko aldian; kostu horietan, ordea, laginak aztertzeke bidaltzen zaizkion beste laborategi baten gastua sartu gabe dagoela ikusi da; 82.689 euro



gehiago dira, aipatu den zenbatekoaz gainera. Oker hori zuzendurik, kanpoko enpresetan egindako gastua 343.616 eurokoa izango litzateke guztira.

NOEBren gastua eta kanpoko enpresena proba mota berari eta garai berari ez dagozkionez, ezin daiteke ondorioz atera gai honi buruz. Horrez gainera, pentsatzekoa da proba mota bakoitzak ez duela baliabide-kontsumo bera eskatzen, zeren kanpoko enpresen tarifak bederatzi eurotik 459 eurotaraino aldatzen baitira. Horregatik, hain zuzen, lortu diren datuen azterketa xeheago bat egin ahal izateko, proba mota bakoitzeko gutxi-asko zer baliabide-kontsumo izaten den eta zer lan egiten den jakin beharko litzateke.

Laburtuz, bada, eta azken ondorio gisa, Ganbera honen iritzian NOEBek Ganberak 2008ko txostenean emandako aholku guztiak bete dituela iritzi dio, eta horrenbestez, Parlamentuak bost urtez segidan NOEBen jarraipena egiteko eskatu bazuen ere, erakunde horren jarraipeneko txosten gehiago egin beharrik ez dagoela uste du.

Txosten hau Karen Moreno Orduña auditoreak, lan honen arduraduna izan denak, proposatuta eman da, indarrean dagoen araudian aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2012ko maiatzak 30

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas.

### **OSASUNeko KONTSEILARIAK BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTURIKO ALEGAZIOAK**

Nafarroako Kontuen Ganberak, 2012ko maiatzaren 18an, Osasun Departamentura bidali du "Nafarroako Odol Transfusioen Zentroaren aholkuen jarraipena" behin-behineko txostena, hark horren berri izan dezan, eta hala badagokio, alegazioak aurkez ditzan.

Hori dela-eta, hau adierazi behar dizut:

- Osasun Departamentuak NOEBen eta kanpoko enpresetan egindako proben hilabeteroko kostuei buruzko informazioa NOEBek emandakoa da. Eskura dugun informazioak ez du aukerarik ematen, tamalez, baliabide-kontsumoak proba bakoitzerako egiten den lanarekin zehazki ponderatu ahal izateko. Gorago ere esan den bezala Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua NOEBren jarduera ere jasoko duen kontabilitate analitiko egiteko sistema bat definitzen eta martxan jartzen ari da. Oso proiektu konplexua da, lan asko ari da eskatzen, eta urte batzuk beharko dira zerbitzu guztietan osorik martxan jartzeko.

- Ehunak biltegian gorde ahal izateko behar den administrazioaren baimenari dagokionez, esan behar da dagoeneko lortu dela baimen hori kornea-banku bat jartzeko –Osasun Zuzendari Nagusiaren apirilaren 20ko 700/2012 Erabakia, Nafarroako Odol eta Ehun Bankuari kornea-banku bat edukitzeko baimena ematen diona–.

Iruñean, 2012ko maiatzak 28

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailea

### **BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTURIKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMANDAKO ERANTZUNA**

Osasuneko kontseilari andreak aurkeztutako alegazioak aztertutik, txostenari atxiki zaio bigarren paragrafoan jasotzen den datua. Lehenengo paragrafoan ematen den informazioari dagokionez, txostenaren ondorioak ezertan aldatzen ez dituen azalpen bat dela iritzirik, txostenari atxikitzen zaio.

Ohar hauek eginik, behin betikotzat ematen dugu txostena.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 30ean

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

## Kontuen Ganberak Nafarroako Osasun arloko gastuak 2001-2011 bitartean izandako bilaka-eraz emandako fiskalizazio-txostena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 15ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Nafarroako Osasun arloko gastuak 2001-2011 bitartean izandako bilakaeraz emandako fiskalizazio-txostena ikusirik, ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñea, 2012ko urriaren 15ean

Ganberako burua: Alberto Catalán Higuera

Kontuen Ganberak Nafarroako Osasun arloko gastuak 2001-2011 bitartean izandako bilaka-eraz emandako fiskalizazio-txostena

### AURKIBIDEA

- I. Sarrera (11. or.).
- II. Helburuak, norainokoa eta mugak (11. or.).
- III. Ondorio orokorrak (12. or.).
- IV. Nafarroan 2001-2011 bitartean izan den osasun alorreko gastuaren, osasun-jardueraren eta horretan erabili diren baliabideen analisisa (15. or.).
  - IV.1 Nafarroako osasun alorreko gastuaren bilakaera 2001-2011 (15. or.).
  - IV.2. Nafarroako osasun alorreko jardueraren bilakaera 2001-2011 (19. or.).
  - IV.3. Nafarroan 2001-2011 bitartean erabilitako baliabideen bilakaera (22. or.).
- V. Nafarroako eta gainerako autonomia-erkidegoetako osasun alorreko adierazleen konparaketazko azterketa (24. or.).
- VI. Aurrerantzerako jokabideei buruzko iradokizunak (26. or.).

Eranskina: Nafarroa – Autonomia Erkidegoak adierazleen alderaketa 2001-2009 (28. or.).

- I.1. Osasun Sistema Nazionalaren babespean dagoen biztanle bakoitzeko osasun alorreko gastua (28. or.).
- I.2. Osasun eremuko gastu publikotik hitzartutako zerbitzuetarako erabilitako gastuaren portzentajea (29. or.).
- I.3. 1.000 biztanleko funtzionatzen dagoen ospitaleko ohe kopurua (30. or.).
- I.4. 1.000 biztanleko ospitaleratze kopurua (31. or.).
- I.5. 1.000 biztanleko ospitaleko egonaldiak (32. or.).
- I.6. Batez besteko egonaldia (33. or.).
- I.7. Ebakuntzak, 1.000 biztanleko (34. or.).
- I.8. Ospitaleraturik egindako ebakuntzen portzentajea (35. or.).
- I.9. Ospitaleko larrialdiak, 1.000 biztanleko (36. or.).
- I.10. Oinarrizko arretako kontsultak, 1.000 biztanleko (37. or.).
- I.11. Arreta espezializatuko kontsultak, 1.000 biztanleko (38. or.).
- I.12. Berriro ospitaleratzeko tasa (39. or.).
- I.13. Herritarrek osasun sistema publikoaren funtzionamenduari buruz duten asebetetze-maila (1etik 10era) (40. or.).
- I.14. Autonomia-erkidegoek osasun-zerbitzu publikoen eskaintzari buruz duten maila erlatiboa (41. or.).

Osasuneko kontseilariak behin-behineko txostenari aurkezturiko alegazioak (42. or.).

Behin-behineko txostenari aurkezturiko alegazioei Kontuen Ganberak emandako erantzuna (43. or.).

## I. SARRERA

2011ko urriaren 13an Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarraren eskaera bat erregistratu zen Kontuen Ganberan, Nafarroako parlamentu-talde popularrak hala eskaturik, Nafarroako Foru Komunitateko osasun arloko gastuaz eta jardueraz txosten bat egiteko eskatuz.

Eskari horretan adierazten denez, 2003ko otsailean Kontuen Ganbera honek Nafarroako Osasun arloko iraganeko gastuei buruzko txosten bat egin zuen; eta txosten horretan 1994-2001 bitartean izandako sorospen-jardueraren azterketa xehe bat aurkezten zen, gainera. Orobat aipatzen da osasunaren alorreko politika egoki ulertzeko aukera ematen zuen metodologia batez prestatu zela txosten hori. Gaur egungo ekonomiaren krisi-egoera eta osasunaren alorrean egin nahi diren erreformak kontuan hartuta, txostena helburu eta metodologia berak erabiliz egiteko eskatzen zaigu eskarian, Ganbera honek 2003ko txostenean aztertzen zituen urteen ondoko ekitaldiak aztertuz, era horretan Nafarroako osasun alorraren bilakaeraren analisi bat edukitzeko.

Kontuen Ganberak 2012rako fiskalizazio-programan sartu zuen lan hau eta kontu-ikuskaritzako bi teknikarik eta kontu-ikuskatzaile batek egin dute apiriletik ekainera bitartean, Ganbera honetako zerbitzu juridikoen, informatikoen eta administratiboen laguntzarekin.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarrenean txosten honen helburuak eta irismena adierazten dira; hirugarrenean, azterketa honetatik atera diren ondorio orokorrak. Laugarrenean xeheki aztertzen da osasun alorreko gastuak, osasun alorreko jarduerak eta Nafarroan aldi horretan erabili diren baliabideek 2001-2011 bitartean izan duten bilakaera. Bosgarrenean, adierazle sail bat hartuta, gainerako autonomia-erkidegoetako datuekin alderatzen da, eta azkenean osasunaren eremu publikorako jardunbide batzuk iradokitzen dira.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko (O-NOZ) langileei, Sorospenaren Kalitate Zerbitzuko batez ere, lan hau egiteko emandako laguntzarengatik.

## II. HELBURUAK, NORAINOKOA ETA MUGAK

Hauek dira txosten honen helburuak, Parlamentuak egindako eskariarekin arabera:

- Nafarroako Foru Komunitateak 2001etik 2011ra bitarteko aldiaren osasunaren alorrean egindako gastuaren bilakaera aztertzea.

- Nafarroako Foru Komunitatean 2001-2011 aldiaren osasunaren alorrean izandako jardueraren gastu horrekin kontrastatzea.

- Esandako jardueraren bideratzeko zer baliabide erabili diren begiratzea.

- Osasunaren alorrean esanguratsuak diren zenbait adierazle hartuta, Nafarroako Foru Komunitatearen eta gainerako autonomia-erkidegoen arteko konparaziozko analisi bat egitea.

- Kontuen Ganbera honen 2003ko txostenean iradokitzen ziren jardunbideak bideratu diren aztertzea eta, martxan jarri ez badira, gaur egungo egoeran aplikatzekoak liratekeen begiratzea.

Nafarroako Foru Komunitateko egoera aztertzeko, O-NOZen 2001-2010 bitarteko memoriak, 2011ko memoria prestatzeko igorritako informazioa eta Nafarroako Gobernuaren aldi horretako aurrekontuen aurrekontu-betetzeak –zerga-gastuak kontuan hartu gabe–, izan dira lan honetarako aztergaiak. Autonomia-erkidegoen arteko alderaketa egiteko, Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasuneko Ministerioaren eta Osasun Zerbitzu Publikoen Defentsarako Elkarleen Federazioaren deskribapen- eta estatistika-txosten batzuk erabili dira.

Lan hau egiteko, honako printzipio eta arau hauei jarraitu zaie: Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organoren Publikoaren Koordinazio Batzordeak onetsi eta Kontuen Ganberak bere fiskalizazio-eskuliburuan garatutako sektore publikoaren kontu-ikuskaritzari buruzko fiskalizazio-printzipioak eta fiskalizazio-arauak, lan honetarako bereziki egoki iruditu zaizkigun egokitzapenak eginik.

Badira zenbait arazo lan hau egiterakoan sortu eta lan honen norainokoa mugatzen dutenak; hona horietako zenbait:

- O-NOZean badira zenbait gastu ekitaldi jakin batean kontabilizatu ez eta hurrengo ekitaldian erregistratu direnak. Puntu hau aztertu eta 2011ko aurrekontu-betetzeari buruzko txostenean ateratzen den zenbatekoa zuzendu da. Horregatik, hain zuzen, baliteke gainerako urteei dagokienez eskaintzen diren zenbatekoak ez izatea zuzenak, baina bai erakusten dute, hala ere, aukeratu diren adierazleen joera zein den.

- Nafarroako 2011ko osasun alorreko jardueraren analisia memoria orokorra egiteko banaka emandako informazioan oinarrituta egin da, txosten hau idazten ari den unean datu horiek biltzen dituen argitalpen ofizialik ez dagoenez.

- Beste autonomia-erkidegoei buruzko datuak Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasuneko

Ministerioak argitaratutako informazioetatik hartu dira. Informazio hori zenbait autonomia-erkidegoen (baita Nafarroakoaren) memoriatan eskaintzen denarekin guztiz bat ez datorrela ikusi da; alde handirik ez dago, nolana ere. Horrez gainera, autonomia-erkidegoek ematen dituzten datuek irizpide berdintsuz prestatuak izan behar dute, landu ahal izateko; irizpide horiek, ordea, ez dute zertan Autonomia Erkidegoek beren memoriak prestatzeko erabiltzen dituztenen berdinak izanik. Hori ez da egiaztatu, nolana ere, eta baliteke datuak ez izatea beti-beti homogeenak. Esan beharra dago, gainera, Nafarroari buruzko 2011 arteko daturik ez badugu ere, autonomia-erkidegoei dagokienez, informazioa dugun erreferentziatzko azkeneko data 2009 dela; horregatik, hain zuzen, data horretara bitarteko alderaketa baizik ez da egin.

Hala eta guztiz ere, Ministerioaren datuak hartu dira Autonomia Erkidegoak alderatzeko, horiek baitira gaur egun dagoen erreferentzia bakarra.

• Ez da erabaki Nafarroako osasun sistemaren kalitatea beste autonomia-erkidego batzuetakoarekin alderatzeko aukera emango duen adierazlerik. Puntu honekin lotura bat duten hiru adierazle sartu

dira: berriz ospitaleratu beharren portzentajea, herritarrek osasun-sistemari dagokionez duten asebetetasun-maila eta Osasun Zerbitzu Publikoen Defentsarako Elkarteen Federazioak osasun-zerbitzu publikoez argitaratutako txostenetan autonomia-erkidegoek duten maila erlatiboa.

• Eta, azkenik, osasun-jarduera bideratzeko erabiltzen diren giza baliabideen analisisia O-NOZeko langileak kontuan hartuta egin da. Osasun Departamentuko langile-gastuaren gainerakoa gastu osoaren ehuneko 1,2 da; zenbateko hori, ordea, ez da adierazgarritzat hartzekoa, puntu honi buruz ondorioak ateratzeko.

### III. ONDORIO OROKORRAK

Atal honetan, egindako lanetik ateratako ondorio nagusiak azalduko dira:

a) 2001 - 2011 bitartean osasunaren alorreko gastua Nafarroako Gobernuarena baino gehiago igo da, eta joera bera ikusten da erreferentzia-puntutzat 1994koa hartzen bada ere, ondoko koadrona ikusten den bezala (mila eurotan):

Kontzeptua	1994	2001	2011	% emendioa 2011/1994	% emendioa 2011/2001
Osasun Departamenduko langileak <sup>1</sup>	192.383	280.408	487.113	153	74
Osasun Departamentuak egindako ondasun arruntan eta zerbitzuen erosketak	78.123	108.074	241.378	209	123
Os. Dep.ak transf. arruntetan egindako gastua	58.130	100.618	163.902	182	63
Osasun Dep. gastu arruntak	328.635	489.099	892.393	172	82
Osasun Dep. inbertsioetan eginiko gastua	11.913	21.580	57.479	382	166
Osasun Departamentua, gastuak guztira	341.704	511.306	951.139	178	86
Nafarroako Gobernuko langileak	427.624	664.244	1.155.910	170	74
Nafarroako Gobernuaren ondasun arruntan eta zerbitzuen erosketak	124.404	185.614	513.100	312	176
Naf. Gobern. transf. arruntetan egindako gastua	407.818	973.306	1.399.555	243	44
Naf. Gobern. gastu arruntak	1.002.407	1.872.746	3.126.161	211	67
Naf. Gobern. inbertsioetan eginiko gastua	189.190	248.947	193.934	2,5	-22
Nafarroako Gobernua, gastuak guztira	1.371.334	2.368.068	3.657.625	167	54
Nafarroako biztanleria (biztanleak)	532.836	556.263	642.051	20	15
Osasun gastua/biztanleko (eurotan)	641	919	1.481	131	61

(1) Besterik esan ezean, datuok Osasun Departamenduari dagozkio, O-NOZ ere barne dela.

2001eko egoerarekin alderatuta, Osasun zerbitzuetako langile-gastua Nafarroako Gobernuaren langile-gastuaren proportzio berean hazten dela eta ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastua gutxiago hazten dela ikusten bada ere, Departamenduaren osotarako gastuaren emendioa Gobernuarena baino handiagoa dela ikusten da orobat. Horren arrazoia transferentzia arruntetan egindako gastuak (ospitaletako botiketan egindako gastuak batez ere, ehuneko 352 handitu baitira, eta 12,76 milioi euro izatetik 57,63 euro izatera igo baitira) eta inbertsioetan eginak (obretan batez ere, ehuneko 312 handitu baita 2001ekoarekin alderatuta, eta 49,88 milioi euroko gastua izan baita) izan duten emendioa da, ehuneko 166 igo baitira guztira, 2001ean gastatu ziren 21,58 milioi euroetatik 2011n gastatu diren 57,48 milioi euroetara iristeraino.

1994koarekin alderatuta, Osasun Departamentuaren gastuaren hazkundera handiagoa izan da, oro har; baina txikiagoa da langile-gastuei, ondasun arruntetan eta zerbitzuetan egindakoei eta transferentzia arruntetan egindakoei dagokionez.

Honen arrazoia Osasun Departamentuak 2011n inbertsioetan –bai osasun-tekniketan bai dauden azpiegiturak berritzen eta zabaltzen– egin duen gastuak, 1994koarekin alderatuta, izan duen hazkundera izan da –ehuneko 382ko emendioa–, Nafarroako Gobernuak alor honetan izan dituen gastuen hazkundera txikiaren aldean –ehuneko 2,5 besterik ez–.

Beste alde batetik, Nafarroak 642.051 biztanle zituen 2011n, 1994an baino ehuneko 20 eta 2001ean baino ehuneko 15 gehiago; osasunaren alorreko gastua, berriz, ehuneko 131 eta ehuneko 61 hazi da, aipatu diren lehenengo eta bigarren urtekoekin alderatuta.

b) Osasun alorreko jarduerari dagokionez, Kontuen Ganberaren 2003ko txostenean jasotzen zen joera bera ageri da; hartan, izan ere, kontsultak, ospitaleratzeak, ebakuntzak eta larrialdiak ugaltzen zirela aipatzen zen, ospitalez kanpoko larrialdiak batez ere, eta ospitaleko egonaldiak, egonaldien batez besteko luzera eta ohe kopurua urritzen zirela esaten zen.

Kontzeptua	1994	2001	2011	Aldaketa (%) 2011/1994	Aldaketa (%) 2011/2001	2011-1994 aldea	2011-2001 aldea
Oinarrizko arretako kontsultak	2.612.773	2.781.679	3.058.497	17	10	445.724	276.818
Oinarrizko arretako kontsultak/biztanleko	4,90	5,19	4,83	-1,4	-7	-0,07	-0,36
Oinarrizko arretako erizaintza-kontsultak	1.577.125	1.499.930	2.066.737	31	38	489.612	566.807
Oinarrizko arretako erizaintza-kontsultak/bizt.	2,96	2,70	3,22	9	19	0,26	0,52
Arreta espezializatuko kontsultak O-NOZ	675.915	870.818	1.000.522	48	15	324.607	129.704
Arreta espezializatuko kontsultak/bizt.	1,27	1,57	1,56	22	-0,6	0,29	-0,01
Ospitaleratzeak	47.584	53.098	58.425	23	10	10.841	5.327
Ospitaleko larrialdiak	184.862	239.195	244.322	32	2	59.460	5.127
Ospitaleko larrialdiak / bizt.	0,35	0,43	0,38	8,6	11,6	0,03	-0,05
Ospitalez kanpoko larrialdiak	89.470	276.518	476.861	433	72	387.391	200.343
Ospitalez kanpoko larrialdiak / bizt.	0,17	0,50	0,74	335	48	0,57	0,24
Ebakuntzak O-NOZean	29.447	42.503	44.430	51	5	14.983	1.927
Ospitaleko egonaldiak O-NOZean	393.062	383.839	347.210	-12	-10	-45.852	-36.629
Egonaldien batez besteko luzera O-NOZean	8,26	7,23	5,94	-28	-18	-2,32	-1,29
Oheak	1.472	1.396	1.312	-11	-6	-160	-84
Langile baliokideak O-NOZ	7.031	8.257	10.160	45	23	3.129	1.903
Langile baliokideak Oinarrizko arretan	1.818	2.152	2.037	12	-5	219	-115
Langile baliokideak Arreta espezializatuan	4.560	5.818	7.755	70	33	3.195	1.937

Jarduera hori guztia O-NOZean langile balioki-deen kopurua (O-NOZean lan egin duten langileen kopurua urte osoan lanean jardun izan balute izango litzatekeen kopurura bihurtuz) 2001-2011 bitartean ehuneko 23 handituz egin da.

Langile multzo horretako talde nagusiak azter-tzen badira, oinarritzko osasun-laguntzako langile-ak, 2001ekoekin alderatuta, ehuneko bost urritu direla ikusten da, baina multzo hori 1994koarekin alderatuz gero ehuneko 12 hazi dela, orobat. Datu hau jarduera honen bilakaerarekin lotzen bada, kontsulta kopurua proportzioz langileena baino gehiago hazi dela ikusten da.

Beste alde batetik, arreta espezializatuko langi-leak ehuneko 33 eta ehuneko 70 emendatu dira, 2001ean eta 1994an zirenekin alderatuta, hurre-nez hurren. Era honetako arretari dagokion jardue-ra horretan diharduten langileen kopurua adina emendatu ez den arren –areago, urritu den arren– ospitaleratzen ez diren gaixoen arretarako jarduera hazi egin da (diagnosi-probak edo artategiko kirur-gia xeheko ebakuntzak, guztirakoan sartzen ez direnak, adibidez), eta horrek justifika lezake era-kusten diren kopuruaren bilakaera.

Jarduera hori aipatu diren biztanle kopuruekin lotzen badugu, Nafarroako biztanle bakoitza 2011n oinarritzko osasun-laguntzako kontsultetara urtean 4,83 bider joaten dela ikusten da: kopuru hori 4,90 zen 1994an eta 5,19 2001ean; alde horretatik, bada, baliabide honen eskaerak behera egin duela ikusten da.

Biztanle bakoitzeko erizaintzako kontsultak urtean 3,22 dira, batez beste; 1994an 2,96 ziren eta 2011n 2,70; zerbitzu hau erabiltzeko eskaera geroz eta handiagoa da, bada, ikusten den bezala.

Arreta espezializatuko kontsultei dagokienez, Nafarroako biztanle bakoitza 1,56 bider joan da, batez beste, 2011n; 1994an 1,27 bidez joen zen eta 2011n 1,57 bider. Eskakizun honetan gorakada nabarmena ikusten da 2001. urtea arte, eta urte horretatik aurrera eskakizun hori bere horretan geratzen da.

Beste alde batetik, Nafarroako biztanle bakoitza 0,38 aldiz joaten da, batez beste, ospitaleko larrialdietara eta 0,74 aldiz ospitalez kanpoko larri-aldietara. Alor honetan, eskakizuna egonkortzeko joera ikusten da ospitaleko larrialdiei dagokienez, eta ugaltzeko joera ospitalez kanpoko larrialdiei dagokienez, baliabide horien erabilera indartu egin denez.

**c)** Txosten honen eranskinean sartu ditugun taulek eskaintzen duten informazioa kontuan har-tuz gero, Nafarroa gainerako autonomia-erkidego-

ekin alderatuta, Nafarroako biztanle bakoitzeko osasun alorreko gastua aztertzen ari garen aldi horretan Espainian izan den batez besteko gastua baino handiagoa izan dela ikusten da.

Nafarroan, aztertu diren urte hauetan, ospitale-ratzeak Espainiako batez bestekoa baino gehiago badira ere, eta 2009an aldea are handiagoa bihur-tzen bada ere, ospitaleko egonaldiak gutxiago dira eta egonaldien luzera laburragoa.

2001ean Espainian batez beste baino ebakun-tza gehiago egiten ziren 1.000 biztanleko, baina kopuru horrek izan duen bilakaerak erakusten duenez, 2009an Espainiako batez bestekoa baino txikiagoa zen kopuru hori.

1.000 biztanleko ospitaleko larrialdiak 2001ean Espainiako batez bestekoaren antzekoak baziren ere, 2009an gutxiago ziren.

**d)** Eskaintzen den zerbitzuaren kalitatearekin zerikusirik izan lezatekeen adierazleen analisiari dagokionez, aztertzen ari garen aldi honetan berri-ro ospitaleratu behararen tasarik txikiena duen erkidegoa Nafarroa dela ikusten da.

2001ean Nafarroa bigarren lekuan dago herri-tarrek osasun-sistema publikoaren funtzionamen-duaz duten asebetetasunari dagokionez, eta 2009an hirugarren lekuan.

Osasun Zerbitzu Publikoen Defentsarako Elkar-teen Federazioak prestatutako txostenak kontuan hartuz gero, Nafarroak gainerako autonomia-erki-degoekin alderatuta duen lekua nabarmen hobetu dela ikusten da, 2011n lehenengo lekuan baitago, eta 2004an, erakunde horrek ranking hau prestatu zuen lehenengo ustean, hain zuzen, hirugarren lekuan egonik.

**e)** Ganbera honek 2003ko txostenean iradoki-tzen zituen jarduera-ildo batzuk martxan jarri dira, hala nola, Nafarroako Ospitalegunea sortuz ospi-tale-eredua berrantolatzea, sendagaiak printzipio aktiboaren eta izen generikoaren arabera agintzea edota farmazian eta bestelako eskaintza batzue-tan koordinaketa ezartzea.

Medikuntza prebentiboa indartzeari, defentsaz-ko medikuntza gutxitzeari edota osasunaren kos-tuaren kontzientzia hartzeari dagokion gainerako iradokizunak gaur egun ere aplikatzekoak lirateke, eta baita beste zenbait ere, hala nola giza baliabi-deen kudeaketa hobetzea, osasun alorreko langi-leei erabakiak hartzeko unean leku gehiago uztea, itxaro-zerrendak hobeto kudeatzea, hitzarmenak, inbertsioen bideragarritasun-planak egitea, kostu-en sistema ezartzeko prozesua burutzea edota alor honetako premiekin hobeto egokituko diren aurrekontu errealistagoak prestatzea.

Proposatzen diren neurri horiek martxan jarri baino lehen, hala ere, alderdi ekonomikoak ez ezik, neurri horiek gaur egungo ekonomiaren tesuinguruan zenbateraino egokitzen diren neurtzeko balio lezaketen eraginkortasunari, errendimenduari, berdintasunari edo kalitateari dagozkien beste alderdi batzuk ere kontuan hartzen dituen analisi bat beharko litzateke egin.

#### **IV. NAFARROAN 2001-2011 BITARTEAN IZAN DEN OSASUN ALORREKO GASTUAREN, OSASUN-JARDUERAREN ETA HORRETAN ERABILI DIREN BALIABIDEEN ANALISIA**

Ondoren Nafarroan 2001-2011 bitartean izan den osasun alorreko gastuari, gastu horren bidez gauzatu den osasun-jarduerari eta horretan erabili diren baliabideei buruzko datu ekonomikoak aurkeztuko ditugu.

##### **IV.1 NAFARROAKO OSASUN ALORREKO GASTUAREN BILAKAERA 2001-2011**

Datu ekonomikoen azterketa hau aztertu den aldi honetako aurrekontu-betetzeak kontuan hartuz egin da. Txosten honetako 12. eta 13. orrialdeetako 1. eta 2. tauletatik ateratzen diren ondorio nagusiak hauek dira:

- Osasun Departamentuaren gastuak ehuneko 86 hazi ziren 2001-2011 aldian; Nafarroako Gobernuarenak, berriz, ehuneko 68, gastu fiskalak kontuan hartuta, eta ehuneko 54, gastu fiskalak kontuan hartzen ez badira.

Hala eta guztiz ere, 2011n, bai departamentuaren gastuak bai Gobernuarenak, ehuneko zortzi jaitzi ziren, 2010ekoekin alderatuta.

2011ko aurrekontu-betetzea berrikusi da eta Osasun Departamentuan 2012ko aurrekontura egotzi diren gutxienez 33,4 milioi euro daudela ikusi da.

1994-2011 bitarteko segidan, Departamentuaren gastuak Gobernuarenak baino 11 puntu gehiagoz emendatu direla ikusi da, Gobernuaren gastu fiskalak kontuan hartu gabe.

- Langile-gastuak ehuneko 74 hazi dira bai departamentuan bai Gobernuan, 2001-2011 bitarteko aldi horretan, eta batean zein bestean 2011n ehuneko bat urritu dira 2010ekoekin alderatuta.

2005etik aurrera aparteko lanaldiengatikoko gastuak hasten dira; gastu horiek 2009an jo zuten gorena -8,68 milioi euro-, 14/2008 Foru Legea, laguntza espezializatuaren arloko itxaronaldien

bermeei buruzkoa onartu izanaren ondorioz, batez ere, berehalakoxe eragina izan baitzuen kontsultarako eta ebakuntzetarako itxaron beharreko egun kopuruan, 16. orrialdeko koadroan ikusten den bezala. Puntu honi dagokionez, esan beharra dago 2011n kendu egin zirela aparteko lanaldien programak, eta indarrak gabe utzi zen, gainera, aipatu den bermeei buruzko legea.

- Aztertu den aldi honetako gastu arruntek departamentuaren gastu guztien ehuneko 96 egiten dute batez beste. Gastu horiek 2011n izan duten emendioa 53 puntu txikiagoa da Departamentuan (ehuneko 123) Gobernuan baino (ehuneko 176).

Joera horixe bera ageri da 1994-2011 aldiari dagokionez ere, Gobernuaren gastuen emendioak 47 puntuz handiagoa baita Departamentuarena baino.

- Osasun-hitzarmenetan kontabilizatu den gastuak ehuneko 198ko emendioa izan du aztertu den aldi honetan; horretan eragina izan zuen aipatu den bermeei buruzko legea onartu izanak; gastu hau 56,7 milioi eurokoa izan zen 2011n, 2010ean izan zen gastuarekin alderatuta ehuneko 22 jaitzi bazen ere. Kontuan hartu behar da, hala ere, gastu horiek kontabilizatzerakoan denbora-aldeek aldaketa handiak eragin ditzaketela aurreko kopuruetan.

2011n konputatutako gastu guztien artetik 5,93 milioi hitzarmenetatik datozela ikusi da; horrek ehuneko 229ko emendioa adieraziko luke, 2001eko datuekin alderatuta. Beste alde batetik, Kontuen Ganberak 2011ko urrian argitaratu zuen osasun-hitzarmenei buruzko txostenean esaten denez, 2009an 8,65 milioi euroko gastuak izan ziren urte horretan aitortu ez eta 2010ean inputatu zirenak. Hori kontuan hartuta, 2011ko urritze-portzentajea, 2010ekoarekin alderatuta, ehuneko 11koa izango litzateke.

- Ospitaleko sendagaietan kontabilizatu den gastua ehuneko 352 handitu da; 2011n 57,63 milioi euroko gastua izan da, eta ehuneko 34 beheratu da 2010ekoarekin alderatuta. Aurreko kasuan bezala, ordea, aurrekontuaren kontusail honetan ere denbora-desegokitasunak daude gastuak kontabilizatu beharreko ekitaldiei dagokienez.

Aurrekontuko kontusail honen aurrekontu-betetzea 2009, 2010 eta 2011 urteetan izandako egiazko sendagai-kontsumoari buruz O-NOZeko langileek emandako datuekin erkatu da, eta emaitza hauek atera dira:

Urtea	Kontabilizatutako gastua	Egiazko gastua	Egiazko gastua/kontabilizatutako gastua aldea %
2009	52.513.810	67.334.963	28,22
2010	87.741.652	69.265.829	-21,06
2011	57.633.573	70.126.813	21,68
Guztira	197.889.035	206.727.605	4,47

Koadro honetan ikusten den bezala, egiazko gastuetan agertzen ziren kopuruek aldatu egiten dituzte aurreko ondorioak, zeren 2001etik 2011rako emendioa ehuneko 372koa izango bailitzateke, eta 2010ekoaren aldean ehuneko bateko emendioa izango bailitzateke, eta ez eman den kopurua.

- Errezetengatiko gastuak ehuneko 62 hazi dira aztertzen ari garen aldian; 2011n, hala ere, gastu horiek ehuneko 13 urritu dira 2010ekoekin alderatuta.

O-NOZean esan digutenez, abenduko errezetengatiko gastua hurrengo urtean fakturatzen eta kontabilizatzen da normalean. Hala eta guztiz ere, 2011n ez zen kontabilizatu azaroko gastua; 11,14 milioi eurokoa izan zen. Hori kontuan hartuz gero, 2001ekoaren aldean, ehuneko 73ko emendioa

izan da, eta 2010eko gastuarekin alderatuta izan den beherapena ehuneko seikoa.

- Inbertsioetan egindako gastuaren hazkundea ehuneko 166koa izan da 2001ekoarekin alderatuta, eta ehuneko bostekoa 2010ekoarekin alderatuta; gastu hori osasungintzako teknika berriak ezarri izanak eta lehendik zeuden azpiegiturak berritzeak edo handitzeak eragina da.

- BPGarekin alderatuta, Departamendu honek 2001-2011 bitartean egin dituen gastuak, haren ehuneko 4,65 dira batez beste, eta 2011n ehuneko 4,74 izatera iritsi dira.

- Departamendu honek biztanle bakoitzeko egin dituen gastuak ehuneko 61 hazi dira 2001etik 2011ra; 2011n, hala ere, gastu horiek ehuneko bederatzi urritu dira 2010ekoekin alderatuta. 1994az gero, biztanle bakoitzeko gastua ehuneko 131 hazi da 2011ra bitartean.



## I. taula. Osasun Departamentuaren datuen bilakaera 2001-2011

Gastuaren adierazlea	2001. urtea	2002. urtea	2003. urtea	2004. urtea	2005. urtea	2006. urtea	2007. urtea	2008. urtea	2009. urtea	2010. urtea	2011. urtea	% 11/01	% 11/10
1. kapitulua, guztira	280.407.617	294.098.333	319.161.379	341.594.115	363.327.622	381.373.936	406.748.331	463.873.130	502.579.525	491.917.376	487.112.887	73,7	-1,0
Aparteko lanaldiengaitiko eta orezkazarengaitiko produktibitate-gastuak (1500/557 kod.)	-	-	-	-	1.115.641	2.092.588	2.308.096	6.172.520	8.673.897	6.103.841	6.938.765	-	13,7
2. kapitulua, guztira	108.073.819	145.409.633	140.960.612	144.316.248	164.179.569	199.683.645	213.917.789	227.640.361	240.967.033	301.144.727	241.378.195	123,3	-19,8
Osasun-hizarmenengaitko gastuak	19.035.959	25.226.389	22.754.649	24.867.921	26.860.726	35.338.728	44.876.000	51.705.890	54.604.176	72.526.415	56.704.724	197,9	-21,8
Osaitaleko sendagaiak (2105 kod.)	12.763.289	32.643.412	28.655.007	27.117.196	42.743.246	44.157.670	50.668.347	54.482.800	52.513.810	87.741.652	57.633.573	351,6	-34,3
4. kapitulua, guztira	100.617.605	124.190.839	121.610.854	140.905.804	151.206.413	161.056.740	170.196.266	180.158.387	190.262.969	186.364.035	163.901.599	62,9	-12,1
Familien eta pertsona partikularren sendagaiak	96.404.844	119.541.189	116.846.133	135.496.284	145.522.899	154.901.453	163.478.695	173.021.079	182.355.960	178.767.086	156.072.052	61,9	-12,7
Osasun Dep. gastu arruntak	489.099.041	563.698.805	581.792.846	626.816.167	678.713.604	742.114.320	790.862.386	871.671.878	933.809.527	979.426.138	892.392.680	82,5	-8,9
Gastu arruntak / biztanleko	879	990	1.006	1.072	1.144	1.233	1.305	1.405	1.481	1.538	1.390	58,1	-9,6
6. kapitulua - Inbertsioak, guztira	21.580.224	22.337.470	17.260.843	23.943.682	14.668.548	22.849.752	42.254.065	34.436.341	28.037.020	54.963.191	57.479.317	166,4	4,6
Obrak (6019+6020+6021)	12.099.974	9.211.398	7.932.284	11.744.138	7.511.487	12.752.827	20.702.896	16.919.072	19.081.732	46.580.980	49.882.360	312,3	7,1
6. kapitulua, gainerakoa	9.480.250	13.126.071	9.328.559	12.199.544	7.157.061	10.096.925	21.551.169	17.517.269	8.955.288	8.382.211	7.596.958	-19,9	-9,4
OSASUN DEP. GUZTIRA	511.306.313	586.523.232	599.602.775	651.407.291	694.244.953	765.984.220	834.146.907	907.156.167	964.274.760	1.036.054.547	951.138.840	86,0	-8,2
Osasuna / BPG %	% 4,62	% 4,59	% 4,40	% 4,43	% 4,38	% 4,47	% 4,55	% 4,75	% 5,17	% 5,38	% 4,74	2,7	-11,8
Osasun Dep. gastua / biztanleko	919	1.030	1.037	1.114	1.170	1.273	1.377	1.462	1.529	1.627	1.481	61,2	-8,9
Errezetengaitko gastua / biztanleko	173	210	202	232	245	257	270	279	289	281	243	40,3	-13,4
NAFARROAKO GOBERNUA													
1. kapitulua, guztira	664.243.865	691.903.926	756.277.747	802.774.580	856.994.871	912.879.992	974.073.420	1.107.065.260	1.176.307.291	1.164.024.134	1.155.910.287	74,0	-0,7
2. kapitulua, guztira	185.613.569	230.502.007	228.761.047	251.274.793	281.746.500	335.727.301	403.129.541	496.781.180	511.824.935	575.082.322	513.099.633	176,4	-10,8
Gastu fiskalak (guztirakoan sartuak)	-	-	-	-	221.752.086	281.608.771	423.428.408	399.237.316	380.500.998	322.000.560	311.267.007	-	-3,3
NAFARROAKO GOB. GASTUAK GUZTIRA	2.368.067.988	2.565.898.361	2.688.510.991	2.808.132.312	3.310.372.160	3.699.799.917	4.294.301.263	4.402.455.479	4.372.680.252	4.301.248.628	3.968.892.203	67,6	-7,7

## 2. taula. Nafarroako osasun alorreko gastuaren adierazle nagusien bilakaera 1994-2011

Urtea	Osasun Dep. aurrek. erabilia	Naf. Gob. aurrek. erabilia (milioi €, gastu fiskalik gabe)	Osasun Dep. / Nat. Gob. Aurrek. % (gastu fiskalik gabe)	Osasun Dep. gastua / biztanleko	Osasuna / BFG %	Osasun Dep. aruntak (milioi €)	Naf. Gob. gastu aruntak (milioi €)	Osasun Dep. aruntak / Naf. Gob. gastu aruntak %	Osasun Dep. gastu aruntak / Nat. Gob. gastu aruntak % (gastu fiskalik gabe)	Osasun Dep. gastu aruntak / gastuak guztira %
1994	341,70	1.371,33	24,9	641	5,64	328,63	1.002,41	32,8	32,8	96,2
1995	350,07	1.448,25	24,2	653	4,70	337,12	1.100,46	30,6	30,6	96,3
1996	370,91	1.521,12	24,4	713	4,67	357,80	1.176,70	30,4	30,4	96,5
1997	401,53	1.646,45	24,4	771	4,72	384,82	1.267,93	30,3	30,3	95,8
1998	431,08	2.037,36	21,1	812	4,76	409,82	1.553,57	26,4	26,4	95,1
1999	461,17	2.098,53	22,0	857	4,82	439,49	1.642,06	26,8	26,8	95,3
2000	495,38	2.281,63	21,7	911	4,46	469,91	1.741,86	27,0	27,0	94,9
2001	511,31	2.368,07	21,6	919	4,29	489,10	1.872,75	26,1	26,1	95,7
2002	586,52	2.565,84	22,86	1.030	4,59	563,70	2.002,90	28,1	28,1	96,1
2003	599,60	2.688,51	22,30	1.037	4,40	581,73	2.158,81	26,9	26,9	97,0
2004	651,41	2.808,13	23,20	1.114	4,43	626,82	2.309,57	27,1	27,1	96,2
2005	694,24	3.088,62	22,5	1.170	4,38	678,71	2.501,16	27,1	27,4	97,8
2006	765,98	3.418,19	22,4	1.273	4,47	742,11	2.694,85	27,5	27,7	96,9
2007	834,15	3.870,87	21,5	1.377	4,55	790,86	3.074,96	25,7	26,4	94,8
2008	907,16	4.003,22	22,7	1.462	4,75	871,67	3.330,63	26,2	26,9	96,1
2009	964,27	3.992,18	24,2	1.529	5,17	933,81	3.366,15	27,7	28,4	96,8
2010	1.036,05	3.979,25	26,04	1.627	5,36	979,43	3.328,30	29,4	30,1	94,5
2011	951,14	3.657,62	26,01	1.481	4,74	892,39	3.199,58	27,89	28,5	93,8
2011/1994 aldaketa (%)	178,4	166,7	4,5-	131	-16	171,6	219,2	-15	-13,1-	-2,45
2011/2001 aldaketa (%)	86	54,5	20,4-	61,2	10,5	82,5	70,9	6,9	9,2-	-1,92
2011/2010 aldaketa (%)	-8,2	-8,1	-0,1	-8,9	-11,6	-8,9	-3,9	-5,1	-5,3	-0,95

#### IV.2. NAFARROAKO OSASUN ALORREKO JARDUERAREN BILAKAERA 2001-2011

Osasun alorreko jardueraren azterketa O-NOZen aldi horretako memorietan dagoen informazioaz eta erakunde honi 2011ko memoria presatzeko –oraindik ez da argitaratu– eskaintako datuez baliatuz egin da.

Azterketaren emaitza txosten honen 16 orrialdean dagoen 3. taulan erakusten da; hauek dira emaitzarik esanguratsuenak:

- Oinarrizko arretako kontsultak ehuneko 10 ugalduta dira 2011n, 2001ekoekin alderatuta; oinarrizko osasun-laguntzako kontsulten multzo honetan, medikuntza orokorreko kontsultak ehuneko zortzi ugalduta dira eta pediatriakoak ehuneko 21.

Datu horiek biztanleriarekin lotzen baldin badira, biztanle bakoitzeko kontsulta kopurua 5,19 izatetik 4,83 izatera jaitsi da aztertzen ari garen aldi horretan: ehuneko zazpiko beheratzea, beraz.

- Oinarrizko arretako erizaintzako kontsultak ehuneko 38 ugalduta dira 2001-2011ko aldi honetan, 2,1 kontsulta izateraino; kontsulta kopurua 0,4 beheratu da 2010ekoarekin alderatuta.

Biztanle bakoitzeko erizaintzako kontsultak ehuneko 19 ugalduta dira; 2,7 izatetik 3,22 izatera iritsi dira.

- Arreta espezializatuko kontsultak ehuneko 15 ugalduta dira; 2011n milioi bat baino zertxobait gehiago izan dira. O-NOZeko langileek Zerbitzuaren zentroetan eta San Juan de Dios Ospitalean jasotako kontsultak ehuneko 99 dira –San Juan de Dios ospitalekoak ehuneko batera ez dira iristen; kontsulta hauek ehuneko 11 ugalduta dira 2011n; gainerako ehuneko 1 hitzartuak dira, eta ehuneko 32 ugalduta dira.

Lehenengo kontsultak eta hondokoak antzeko portzentajearen ugalduta dira (ehuneko 16 eta ehuneko 15 hurrenez hurren); horregatik, bada, bien arteko erlazioa (1-8) ez da askorik aldatu 2001-2011 bitarteko urteetan.

2001-2011 aldi horretan biztanle bakoitzeko kontsulta kopurua 1,44-1,60 bitartean egon da; 2011n 1,57 da kopuru hori.

- Sendagile bakoitzeko oinarrizko osasun-laguntzako kontsulta kopurua eta kontsulta espezializatuen kopurua ehuneko 20 urritu da 2011n, 2001ean zenaren aldean. Beherakada hori eragin duten faktoreen artean, bat erizaintzako kontsultak ugalduta izana da –kontsulta hauen ugaltze-portzen-

tajea medikuntza orokorrekoena eta pediatriakoena baino handiagoa izan baita–, eta beste bat aldi horretan izan den langileen ugaltzea, 18. orrialdeko taulak erakusten duen bezala; baina baliabide horietatik kontsultetarako zenbat bideratu zen jakin beharko litzateke.

- Ospitaleratzeak 2011n ehuneko 10 ugalduta dira, 2001ekoekin alderatuta; baina biztanleriarekin alderatuz gero, ehuneko bost urritu dira. 2011n 91 ospitaleratze izan dira 1.000 biztanleko; 2011. urtean izan da, aztertzen ari garen epe osoan, ospitaleratze-portzentajerik txikiena.

- Ospitaleratzeak ugalduta baldin badira ere, ospitalean igarotako denbora ehuneko lau laburtu da. Osotasun horretan, zentro hitzartuetan egiten diren ospitaleko egonaldiak, egonaldi guztien ehuneko 16, ehuneko 25 ugalduta dira, O-NOZen zentroetakoekin alderatuta, hauek ehuneko 10 urritu baitira.

1.000 biztanleko ospitaleko egonaldiak ehuneko 17 urritu dira 2001-2011 bitartean. Beste alde batetik, ospitaleko egonaldiaren batez besteko luzera ehuneko 18 laburtu da, 2001ean 7,23 eguneko izatetik 2011n 5,94 eguneko izatera, alegia.

- Ebakuntzak ehuneko zazpi ugalduta dira 2011n, 2001ekoekin alderatuta. Ugaltze horren arrazoiak hauek izan dira: O-NOZean egindako ebakuntza programatuak ehuneko 2 ugalduta dira, San Juan de Dios Ospitalean bertako sendagileek egindakoak ehuneko 42 ugalduta dira (2011n, ebakuntza guztien ehuneko 21), urgentziatzako ebakuntzak ehuneko 17 urritu dira, eta hitzartutako zentroetan egindakoak ehuneko 201 ugalduta (ebakuntza guztien ehuneko lau 2011n).

Hala eta guztiz ere, 1.000 biztanleko ebakuntza kopurua ehuneko zazpi gutxitu da 2001-2011 aldiaren, 78 ebakuntzatik 72 ebakuntzara.

Arreta espezializatuko sendagile bakoitzeko ebakuntza kopurua<sup>(2)</sup> ehuneko 38 gutxitu da azterketa honek hartzen duen aldian, 45 ebakuntzatik 28 ebakuntzara. Gutxitze hori, lehen ambulatorioetako langileak arreta espezializatuko sendagileen artean sartzan ez zirelako eta orain sartzan direlako, eta 18. taulan adierazten den langile-plantillaren hazkundeagatik gertatzen da. Lehen ere esan den bezala, xehekiago aztertu beharko litzateke baliabide-emendio horretatik ebakuntzetarako zenbat erabili den.

(2) O-NOZaren zentroetan egindako ebakuntzak eta San Juan de Dios Ospitaleko sendagileek eginak, denak batera hartzen dira.

- O-NOZean egiten diren kirurgia anbulatorio handiak, gaixoa ospitaleratzetik eskatzen ez dutenak, ugalduz joan dira 2001-2011 bitartean. 2011, zehazki esateko, era horretako 5.354 ebakuntza izan dira, 2001ean izan zirenak baino ehuneko 76 gehiago.

- Ospitaleko larrialdiak ehuneko bi ugaltu dira; ospitalez kanpoko larrialdiak, berriz, nabarmen ugaltu dira, ehuneko 72.

1.000 biztanleko ospitaleko larrialdien kopurua ehuneko 12 urritu da: 381 arreta-zerbitzu 2011n, 2001ean izan ziren 430 arreta-zerbitzuen aldean; ospitalez kanpoko larrialdiak, berriz, 743 izan dira, 2001ean izan zirenak baino ehuneko 49 gehiago, urte hartan 497 arreta-zerbitzu eman baitziren.

- Lehenengo kontsulta egiteko batez besteko itxaronaldiko egun kopurua ehuneko 12 luzatu da, 25 egunetik 28 egun izatera aldatu baita 2001-2011 bitartean. Itxaro-zerrendan dauden gaixoen kopurua ehuneko 79 igo da, eta 35.089 gaixo dira 2011n. Honi dagokionez, 2007ko kopuruak dira batez ere nabarmentzekoak, aztertzen ari garen aldi osoko handienak baitira: 35 eguneko itxaronaldia, batez beste, eta 41.996 pertsona itxaro-zerrendan.

Ebakuntzei dagokienez, itxaronaldia, 2001ean 57 egunekoa zena, 90 egunekoa da 2011n; ehuneko 58 luzatu da, beraz. Itxaro-zerrendan dauden pertsonen kopurua ere ehuneko 83 handitu da, eta 9.539 gaixo daude zerrenda horretan. Balio hauek 2001-2011 bitarte osoan dauden handienak dira.

## 3. taula. Jarduera-adierazle nagusiek 2001-2011 bitartean izan duten bilakaera

Adierazlea	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	% 11/01	% 11/10	11-01 aldea	11-10 aldea
Medikuntza orokorreko kontsulta kopurua	2.362.909	2.474.840	2.500.408	2.532.823	2.588.893	2.509.586	2.678.873	2.727.573	2.650.038	2.565.044	2.550.239	8	0,6	187.330	-14.805
Pediatriako kontsulta kopurua	418.765	452.525	498.781	491.634	494.839	492.411	518.945	514.681	521.301	491.727	508.258	21	3,01	89.493	16.531
Oinarriko arretako kontsultak, guztira	2.781.679	2.927.370	2.999.194	3.024.462	3.083.737	3.002.002	3.197.823	3.242.259	3.171.344	3.056.776	3.058.497	10	0,1	276.818	1.721
Oinarriko arretako kontsultak biztanleko / urteko (eroldea)	5,19	5,41	5,42	5,36	5,38	5,20	5,33	5,26	5,07	4,85	4,83	-7	-0,4	-0,36	-0,02
Oinarriko arretako entzaintza-kontsultak, guztira	1.499.930	1.647.159	1.700.849	1.697.293	2.058.284	2.238.612	2.039.742	2.076.341	2.097.843	2.057.792	2.066.737	38	0,4	566.807	8.945
Oinarriko arretako entzaintza-kontsultak/biztanleko	2,70	2,89	2,94	2,90	3,47	3,72	3,37	3,35	3,33	3,23	3,22	19	-0,4	0,52	-0,01
O-NOZeko langileek egindako arreta espezializatuko kontsulta kopurua	870.818	879.802	879.102	880.537	855.762	884.899	917.469	982.587	1.007.024	1.014.573	1.000.522	15	-1	129.704	-14.051
Arreta espezializatuko lehenengo kontsultak	310.984	311.829	308.647	311.783	305.037	322.769	330.061	373.800	374.271	370.110	359.255	16	-3	48.291	-10.855
Arreta espezializatuko ondorengo kontsultak	559.854	567.973	570.455	568.754	550.725	562.130	587.408	608.787	632.753	644.463	641.267	15	-0,5	81.413	-3.196
Arreta espezializatuko ondorengo/lehenengo kontsultak	1,80	1,82	1,85	1,82	1,81	1,74	1,78	1,63	1,69	1,74	1,78	-1	3	-0,02	0,04
Zentro hitzartuetako arreta espezializatuko kontsultak	7.313	7.388	6.880	6.570	6.553	6.474	6.692	6.832	10.013	10.888	9.625	32	-12	2.312	-1.263
Laguntza espezializatuko kontsultak, guztira	878.131	887.190	885.982	887.107	862.315	891.373	924.161	989.419	1.017.037	1.025.461	1.010.147	15	-1,5	132.016	-15.314
Arreta espezializatuko kontsultak biztanleko / urteko (eroldea)	1,58	1,56	1,52	1,52	1,45	1,48	1,53	1,59	1,61	1,61	1,57	-0,3	-2	-0,01	-0,04
O-NOZeko langileek artatutako kontsultak (O.A. + A. Esp.) / sendagileak	2.045	2.170	2.211	2.150	2.139	2.108	2.118	2.199	2.022	1.711	1.637	-20	-4	-408	-74
Ospitaleratzeak	53.098	53.656	54.390	54.027	54.655	56.894	57.613	60.136	58.686	58.330	58.425	10	0,2	5.327	95
Ospitaleratzeak / 1.000 biztanle	95,45	94,19	94,07	92,40	92,09	94,53	95,09	96,93	93,07	91,58	91,00	-5	-1	-4,45	-0,58
Egonaldi kopurua O-NOZean	383.839	378.905	379.084	376.070	378.998	380.729	381.872	384.493	366.509	352.641	347.210	-10	-2	-36.629	-5.431
Egonaldi kopurua zentro hitzartuetan	49.666	53.427	47.459	45.013	44.911	51.497	54.371	67.500	74.779	67.734	67.040	35	-1	17.374	-694
Egonaldiak guztira	433.505	432.332	426.543	421.083	423.909	432.226	436.243	451.993	441.288	420.375	414.250	-4	-1	-19.255	-6.125
Egonaldia, batez beste	7,23	7,06	6,97	6,96	6,93	6,69	6,63	6,39	6,25	6,1	5,94	-18	-2	-1,29	-0,16
Egonaldia / 1.000 biztanle	779	759	738	720	714	718	720	729	700	660	645	-17	-2	-134	-15
Ebakuntza programatuak O-NOZean	27.540	26.685	27.378	26.872	27.262	28.779	29.268	31.068	31.524	28.575	28.038	2	-2	498	-537
Urgentziako ebakuntzak O-NOZean	8.240	7.080	6.906	7.139	7.176	7.117	7.602	7.401	6.902	6.756	6.858	-17	2	-1.382	102
O-NOZeko langileek SJDOn egindako ebakuntzak	6.723	7.346	7.402	7.470	7.712	7.716	8.382	8.794	9.216	9.707	9.534	42	-2	2.811	-173
Zentro kontzertatuetan egindako ebakuntzak	629	494	442	482	424	971	1.300	1.353	2.799	2.207	1.892	201	-14	1.263	-315
Kirurgia handiak O-NOZean zentrotan	3.039	3.307	4.141	4.198	3.894	4.537	4.713	5.208	5.438	5.617	5.354	76	-5	2.315	-263
Ebakuntzak guztira (O-NOZean - hitzartuetan)	43.132	41.605	42.128	41.963	42.574	44.583	46.552	48.606	50.378	46.892	46.079	7	-2	2.947	-813
Ebakuntzak, 1.000 biztanleko.	78	73	73	72	72	74	77	78	80	74	72	-7	-3	-6	-2
O-NOZeko langileen ebakuntzak / arreta espezializatuko sendagileak	45	44	43	40	40	40	37	41	39	30	28	-38	-7	-17	-2
Ospitalez kanpoko larrialdiak	276.518	276.518	289.691	258.936	329.199	346.201	364.355	410.387	396.314	382.954	476.861	72	25	200.343	93.907
Ospitalez kanpoko larrialdiak / 1.000 bizt.	497	485	501	443	555	575	601	662	628	601	743	49	24	246	142
Ospitaleko larrialdiak	239.195	244.281	253.353	246.306	246.821	254.429	259.594	253.463	252.964	239.027	244.322	2	2	5.127	5.295
Ospitaleko larrialdiak / 1.000 bizt.	430	429	438	421	416	423	428	409	401	375	381	-12	1	-49	6
1. kontsultarako itxaronaldi-egunak batez beste	25	25	28	34	34	32	35	21	21	22	28	12	27	3	6
1. kontsultarako itxaro-zerrendan izan den pertsona-kopurua, guztira	19.560	23.687	28.939	32.092	38.637	34.347	41.996	24.836	25.179	25.174	35.089	79	39	15.529	10.345
Ebakuntzarako itxaronaldi-egunak batez beste	57	65	71	86	89	78	74	61	56	70	90	58	29	33	20
Ebakuntzarako itxaronaldi-egunak dauden pertsonen kop.	5.221	5.601	7.120	8.637	8.570	8.166	7.726	8.781	7.589	7.626	9.539	83	25	4.318	1.913

#### IV.3. NAFARROAN 2001-2011 BITARTEAN ERABILITAKO BALIABIDEEN BILAKAERA

Goian aipatu den jarduera gauzatzeko behar diren baliabide batzuen bilakaera, O-NOZeko langileen datuak baizik kontuan hartu gabe, 18. orrialdeko 4. taulako datu zehatzak jasoz aztertzen da atal honetan. Hauek dira emaitza nagusiak:

- Ohe kopurua ehuneko sei gutxitzen da aztertzen ari garen aldi honetan; 2011n 1.312 ohe izan ziren; 1.000 biztanleko ohe-ratioa ehuneko 19 jaitsi zen: 1.000 biztanleko 2,04 ohe izan zen 2011n.

- O-NOZeko langile kopurua 10.160 langile baliokideraino igo zen 2011n: 2001ean zenaren aldean ehuneko 23 gehiago, alegia.

Hazkunderik handiena sendagileena da, ehuneko 39 ugalduta baita aztertzen ari garen aldiaren ondoren administrazioko langileena, ehuneko 29 ugalduta, eta titulurik gabeko osasun-arretako langileena, ehuneko 27 ugalduta.

- Oinarrizko arretako langileen multzoa 2.037 pertsonak osatzen zuten 2011n, 2001ean baino ehuneko bost gutxiago; aldaketa hori Adimen Osasuneko langileak arreta espezializatura atxiki direlako esplikatu daiteke, partez.

- Arreta espezializatuko langileak 7.755 pertsona dira; kopuru horrek ehuneko 33ko eta ehuneko

70eko hazkuntza izan du, 2001ekoarekin eta 1994koarekin alderatuta, hurrenez hurren.

- Ospitale zentroetako langileria 7.217 langile baliokidekoa izan da 2011n, 2001ean baino ehuneko 39 gehiago.

Langile kopuru horren eta oheen arteko ratioa, 2001ean 3,73 zena, 5,50 da 2011n. Hori horrela gertatzeko arrazoietako batzuk oheak gutxitu izana edo ospitaleratuta dauden pertsonekin loturirik ez duen jarduera-denbora handitu izana (diagnosi-probak egiteko, adibidez: erradiologia, laborategia edo anatomia patologikoa) edo kirurgia anbulatorio handiak eta txikiak ugalduta izana izan daitezke.

- Osasun-txartelak 633.522 dira, 2001ean zen kopurua baino ehuneko 18 handiagoa. Txartel horien bidez estaltzen den eroldaren portzentajea ehuneko 98,7 da; 2001ean ehuneko 96,26 zen.

Osasun-txartel horietatik, ehuneko 17,69 hirurogeita bost urtetik gorako pertsonen dagozkie; 2001ean ere portzentaje berdina zen. Estatistika Institutu Nazionalak egindako epe laburrerako proiektzio demografikoek adierazten dutenez, biztanleriaren portzentaje hori ehuneko 21era igoko da 2021erako; horrek, printzipioz behintzat, osasun-baliabideen eskaera igotzea ekar lezake.

4. taula. O-NOzek erabiltzen dituen ballabide batzuek 2001-2011 bitartean izan duten bilakaera

	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2011/2010 aldaketa (%)	2011/2010 aldaketa (%)
O-NOzen ballabideen adierazleak	1.396	1.370	1.343	1.333	1.338	1.380	1.391	1.388	1.389	1.389	1.312	-6	-5
Ohe kopurua	2.51	2.41	2.32	2.28	2.25	2.29	2.3	2.24	2.2	2.18	2.04	-19	-6
Oheak, 1.000 biztanleko	1.790	1.758	1.757	1.819	1.845	1.847	1.946	1.924	2.071	2.386	2.486	39	4
Medikuak (langile baliokideak)	2.794	2.726	2.829	2.800	2.874	2.934	3.364	3.550	3.662	3.111	3.170	13	2
Osasungintzako langile titulu gabekak (langile baliokideak)	1.942	1.853	1.790	1.845	1.857	1.868	2.071	2.082	2.063	2.465	2.466	27	-
Administratariak (langile baliokideak)	1.153	1.164	1.257	1.224	1.255	1.270	1.533	1.465	1.516	1.432	1.483	29	4
Zerbitzu orokorrak (langile baliokideak)	578	560	521	540	553	541	534	517	514	556	555	-4	-
Langileak, guztira (langile baliokideak)	8.257	8.061	8.153	8.228	8.384	8.460	9.448	9.538	9.826	9.950	10.160	23	2
Oharritzako arretako langileak (langile baliokideak)	2.152	2.025	1.673	1.680	1.688	1.673	1.728	1.850	1.937	2.006	2.037	-5,3	1,5
Arreta espezializatuko langileak (langile baliokideak)	5.818	5.730	6.159	6.241	6.400	6.505	7.426	7.381	7.535	7.638	7.755	33	2
Arreta espezializatuko sendagileak (langile baliokideak)	937	936	972	1.037	1.063	1.085	1.211	1.145	1.226	1.504	1.578	68	5
Ospitaleetako langileak (langile baliokideak)	5.209	5.167	5.117	5.204	5.313	5.381	5.704	5.722	5.837	6.410	7.217	39	13
Sendagileak / 1.000 biztanle	3.22	3.09	3.04	3.11	3.11	3.07	3.21	3.10	3.28	3.75	3.87	20	3
Langile baliokideak / oheko	5.91	5.88	6.07	6.17	6.27	6.13	6.79	6.87	7.07	7.16	7.74	31	8
Ospitaleetako langileak / oheko	3.73	3.77	3.81	3.90	3.97	3.90	4.10	4.12	4.20	4.61	5.50	47	19
Erroldako biztanleria	556.263	569.628	578.210	584.734	593.472	601.874	605.876	620.377	630.578	636.924	642.051	15	1
Osasun-tertel indibiduala, 0-14 urte	72.696	76.337	79.441	81.998	84.739	86.435	90.171	92.518	96.016	97.362	98.494	35	1
Osasun-tertel indibiduala, 15-64 urte	365.026	374.254	383.183	390.436	395.326	400.652	412.927	418.718	423.416	423.756	422.968	16	-0,2
Osasun-tertel indibiduala, ? 65 urte etorkinak	97.737	97.921	98.595	99.398	100.882	102.566	104.383	106.908	108.234	110.128	112.060	15	2
Osasun-tertel indibiduala duen biztanleria sartutako etorkinak	-	29.507	38.159	44.234	49.396	54.301	63.313	72.392	76.150	77.273	76.671	-	-1
Osasun-tertel indibiduala duen biztanleria (O.A.ko sendagileak izendatua duen biztanleria)	535.459	548.512	561.219	571.832	580.947	589.653	607.481	618.144	627.866	631.246	633.522	18	0,4
Osasun-tertel indibiduala duen biztanleria / erroldara	% 96,26	% 96,29	% 97,06	% 97,79	% 97,89	% 97,97	% 100,26	% 99,64	% 99,54	% 99,11	% 98,7	3	-0,4
OTidunak > 65 urte / OTidunak guztira	18,25	17,85	17,57	17,38	17,37	17,39	17,18	17,29	17,24	17,45	17,69	-3	1

Iturria: Memorias SNS-O

## V. NAFARROAKO ETA GAINERAKO AUTONOMIA-ERKIDEGOETAKO OSASUN ALORREKO ADIERAZLEEN KONPARAKETAZKO AZTERKETA

Nafarroako osasun eremuaren eta gainerako autonomia-erkidegoetako artek alderaketa egiteko, II atalean aipatu diren mugak kontuan hartuta, adierazle fidagarri eta esanguratsu sailtxo bat aukeratzeari izan zen lehenengo urratsa.

Horretarako Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berritasuneko Ministerioak argitaratutako deskribapen eta estatistikazko zenbait txosten erabili ziren informazio-iturri gisa: Osasun Eremuko Gastu Publikoaren Estatistika, Barnetegi Araubideko Osasun Establezimenduen Estatistika, Osasun Sistema Nazionalaren Adierazle Giltzarriak, Osasunaren Barometroa eta Oinarrizko Datuen Gutxieneko Multzotik (ODGM) eta Oinarrizko Arretaren Informazio Sistematik eskuratutako datuak.

Horrekin batera, Osasun Zerbitzu Publikoen Defentsarako Elkarteen Federazioak 2004-2011 bitartean prestatutako txostenak ere erabili ziren. Federazio honek hainbat eratako parametroak hartzen ditu kontuan txosten horiek prestatzeko: osasun-zerbitzuen finantzaketa, erabiltzen diren baliabideak, osasun-zerbitzuen funtzionamendua, farmaziari buruzko politika, herritarren balioespina, itxaro-zerrendak eta osasun-zerbitzuen pribatizazioa. Alor horietan emandako puntuaketetan oinarrituta, erkidegoen ranking bat prestatzen da, osasun-zerbitzu publikoen arabera.

Autonomia-erkidego guztiez 2009 arte baizik ez dago informazio eguneratua; horregatik alderaketa hau 2001-2009 bitarteko baizik ez da egin, aipatu den rankingari dagokionez salbu, horri buruzko datuak 2004-2011 aldi osorako baitaude, eta hori ebaluatuko da. Datu hauen azterketan Ceuta eta Melilla ez dira kontuan hartu, ez da begiratu gehieneko edo gutxieneko baliorik duten, hiri autonomo horien ezaugarri bereziengatik.

Adierazle hauek aukeratu dira:

- Osasun Sistema Nazionalaren babespean dagoen biztanle bakoitzeko osasun alorreko gastua.
- Osasun eremuko gastu publikotik hitzartutako zerbitzuetarako erabilitako gastuaren portzentajea.
- 1.000 biztanleko funtzionatzen dagoen ospitaleko ohe kopurua.
- 1.000 biztanleko ospitaleratze kopurua.
- Egonaldiak, 1.000 biztanleko.
- Egonaldia, batez beste.

- Ebakuntzak, 1.000 biztanleko.
- Ospitaleraturik egindako ebakuntzen portzentajea.
- Larrialdiak, 1.000 biztanleko.
- Oinarrizko arretako kontsultak, 1.000 biztanleko.
- Arreta espezializatuko kontsultak, 1.000 biztanleko.
- Berrito ospitaleratzeko tasa.
- Erabiltzaileek osasun sistema publikoari buruz duten asebetetze-maila.
- Osasun Zerbitzu Publikoen Defentsarako Elkarteen Federazioak 2004-2011 bitartean prestatutako txostenetan autonomia-erkidegoek duten maila.

Lortu diren datuetatik –Eranskinean adierazleei dagokienez taula banatan jasota daude– atera daitezkeen **ondorio nagusiak** hauek dira:

**a)** Sistema Nazionalaren babespean dagoen biztanle bakoitzeko osasun alorreko gastua 961 eurokoa izan zen Nafarroan 2001ean; Espainian 818 eurokoa izan zen batez beste. 2009an kopuru hori ehuneko 70 hazi zen; Espainian, berriz, ehuneko 67 hazi zen batez beste; horren ondorioz, hain zuzen, batetik besterako aldea handitu egin da.

Sistema Nazionalaren babespean dagoen biztanle bakoitzeko gasturik txikiena duen komunitatea Balearretakoa da: 1.301 euro; Extremadurakoa, berriz, 1.695 eurokoa da. Nafarroa biztanle bakoitzeko osasun alorreko gasturik handiena duen bosgarren erkidegoa da: 1.634 euro.

**b)** Osasun alorreko gastu publikotik, Nafarroak ehuneko 4,69 osasun alorreko zerbitzu hitzartuetara bideratu zuen 2001ean; Espainian, batez beste, ehuneko 11 izan zen zerbitzu hitzartuetara bideratua. Portzentaje hori ehuneko 38 handitu zen Nafarroan 2009an, ehuneko 6,46 izateraino.

Espainiako batez besteko portzentajea, berriz, ehuneko 9,04raino jaitsi zen; muturreko datuak, alde batetik Kataluniakoa –ehuneko 25,45 (2001ekoarekin alderatuz gero ehuneko 31 jaitsi ondoren)– eta Gaztela-Mantxakoa –ehuneko 3,66– izan ziren.

**c)** 2001ean 1.000 biztanleko 2,51 zeuden mar txan Nafarroan; ratio hori Espainiako batez bestekoa –2,56– baino txikiagoa da. 2009an ratio hori milako 2,2raino jaitsi zen Nafarroan.

2009an Espainiako batez bestekoa ere jaitsi egin zen: 1.000 biztanleko 2,28 ohe. Andaluzia



–1,79 ohe– eta Extremadura –3,22 ohe– dira puntu honi dagokionez muturreko balioak dituzten erkidegoak.

**d)** 1.000 biztanleko ospitaleratzeak 96 izan ziren Nafarroan 2001ean; kopuru hori Espainiako batez bestekoa –88– baino handiagoa da.

2009an, berriz, Espainiako 1.000 biztanleko ospitaleratzeak 86raino jaitsi ziren arren, Nafarroan 97raino igo ziren. Ratorik txikiena duen autonomia-erkidegoa Kanarietakoa da –61– eta handiena duena Asturias –108–.

**e)** 2001ean ospitaleko egonaldiak 1.000 biztanleko 703 izan ziren Nafarroan; kopuru hori Espainiako batez besteko egonaldi kopurua 757 izan zen. 2009an egonaldiak ehuneko 15 jaitsi ziren Nafarroan; Espainian, berriz, ehuneko 12.

2009an, egonaldiak 1.000 biztanleko 595 izan ziren Nafarroan; autonomia-erkidegoka, kopururik txikiena Andaluziakoa izan zen –517–, eta handiena Aragoikoa –898–.

**f)** Batez besteko egonaldia 7,4 egunekoa izan zen Nafarroan 2001ean; Espainiako batez bestekoa, berriz, 7,77 egunekoa izan zen.

Gai honi dagokionez, 2010 arte daude datuak; urte horretan Nafarroako ospitaleko egonaldien batez bestekoa 6,74 egunetaraino jaitsi zen; Espainian, berriz, 7,2 egunetaraino. Nafarroa bosgarrena da ratorik txikiena duten erkidegoen artean; Galiziak du ratorik handiena –8,89 egun– eta Valentziako Erkidegoak txikiena –6,15 egun–.

**g)** Nafarroan 68 ebakuntza egin ziren 2001ean 1.000 biztanleko; Espainian, berriz, 1.000 biztanleko 62 ebakuntza egin ziren batez beste.

2009an, tasa hori ehuneko lau jaitsi zen Nafarroan; Espainiako batez bestekoa, berriz, ehuneko 12 handitu zen; horrela, urte horretan Nafarroan 1.000 biztanleko egin zen ebakuntza kopurua (62) Espainian batez beste egin zen ebakuntza kopurua (69) baino txikiagoa izan zen, eta Nafarroa ebakuntza gutxien egiten den bosgarren erkidegoa izan zen. Ebakuntza tasarik txikiena izan zuen erkidegoa Kanarietakoa izan zen (37); beste muturrean, berriz, Kataluniako erkidegoa dago, 1.000 biztanleko 91 ebakuntzarekin.

**h)** 2001ean ebakuntzaren bat egindako gaixoen ehuneko 59 ospitaleratu behar izan zen Nafarroan; Espainian, berriz, ehuneko 55 da batez beste kopuru hori.

2009an Kanarietako erkidegoak eta Nafarroakoak baizik ez zuten hazkunderik adierazle honi dagokionez. Hain zuzen ere, Nafarroa da ebakuntzaren bat eginik gaixoa ospitaleratu den eba-

kuntza-proportziorik handiena duen erkidegoa: ehuneko 61. Gainerako erkidego guztietan proportzio hori jaisteko joera ikusten da; portzentajerik txikiena Errioxak du: ebakuntza egindako gaixoen ehuneko 36; Espainia osoari begiratuta, portzentaje hori ehuneko 46 da.

**i)** 2001ean ospitaletako 434 larrialdi-zerbitzu izan ziren Nafarroan 1.000 biztanleko; Espainian izan zen batez besteko kopuruaren oso antzekoa –431–.

2009an kopuru hori ehuneko 6 urritu zen Nafarroan, eta hala artatutako larrialdi-tasarik txikiena izan duten erkidegoetan laugarrena da erkidego hau: 1.000 biztanleko 410 zerbitzu. Espainia oro har hartuta alderantziz gertatzen da, kopuru horrek ehuneko 7 egiten du gora eta 1.000 biztanleko 462 larrialdi-arreta dira.

**j)** Oinarrizko arretako kontsultei dagokienez, 2007-2010 bitarteko datuak baizik ez daude, eta aldi horretakoak aztertu dira, horrenbestez. 1.000 biztanleko oinarrizko osasun-laguntzako 9.362 kontsulta izan ziren Nafarroan 2007an; kopuru hori Espainiako batez bestekoa –9.253– baino handiagoa da.

2010ean, berriz, kopuru hori ehuneko 3,4 beheratu zen Nafarroan –oinarrizko osasun-laguntzako 9.040 kontsulta–; Nafarroa seigarren autonomia-erkidegoa da era honetako kontsulta gehien egiten dutenen artean; Espainiako batez besteko kontsulta kopurua ehuneko 1,91 gutxitu da –8.983 kontsulta–. Errioxa da era honetako kontsulta gutxien egiten den erkidegoa –4.969 kontsulta– eta Gaztela-Mantxa kontsulta gehien egiten dena –12.523 kontsulta–.

**k)** Arreta espezializatuko kontsultei dagokienez, 2001ean 1.000 biztanleko 1.484 kontsultako tasa bat zuen Nafarroak; Espainiako batez besteko tasa zertxobait apalagoa zen: 1.000 biztanleko 1.411 kontsultakoa. Hauxe da Espainiako Estatuko Ministerioaren eta Autonomia Erkidegoen iritzien artean desadostasuna nabarmenen agertzen den kasuetako bat, O-NOZen txostenetan ratio hauen emaitza 1.565 baita.

2009an Nafarroan ehuneko hiru txikitu zen tasa hori –1.440 kontsulta–; Nafarroa seigarrena da era honetako kontsulta gutxien egiten dituzten autonomia-erkidegoen artean; Espainiako batez besteko kontsulta-tasa 1.525ekoa da, ehuneko zortzi handiturik. Era honetako kontsulta gutxien egiten den autonomia-erkidegoa Euskal Autonomia Erkidegoa da –1.000 biztanleko 952–, eta gehien egiten dena Madril –1.000 biztanleko 1.840 kontsulta–.

l) 2001ean, Nafarroa da, autonomia-erkidego guztien artean, berriro ospitaleratzeko tasarik txiki-ena duena —ehuneko 5,29—; Espainiako batez beste tasa, berriz, 6,83 da.

2009an, Nafarroa da oraindik berriro ospitaleratzeko tasarik txikiena duen autonomia-erkidegoa, nahiz eta lehendik zuen tasa ia ez aldatu: ehuneko 5,33. Espainiako batez beste tasa, berriz, handitu egin da eta ehuneko 7,27ra iritsi da; Gaztela-Mantxa da honetan baliorik handiena duen erkidegoa: ehuneko 9,12.

m) Nafarroako herritarrek bertako osasun-sistemari dagokionez duten asebetetze-maila, 1etik 10 bitarteko mailaketa bat emanik, 6,97 puntuko zen 2002an; puntuaketa hori Espainiakoa —5,94 puntu— baino altuagoa zen (2001eko daturik ez dago).

2010ean balioespen hori igo egin zen zertxobait, 7,06 punturaino; balioespen honi dagokionez, Espainiako erkidegoetan hirugarren puntuaketa hoberena duena da (Espainiako batez beste puntuaketa 6,57 da), Asturiasen (7,71 puntu) eta Aragoiren (7,2 puntu) ondoren. Puntuaketa apa-lena duen erkidegoa Kanarietakoa da: 6,04 puntu.

n) 2004an osasun-zerbitzurik hoberena eskaintzen zuen hirugarren erkidegoa zen Nafarroa, Osasun Zerbitzu Publikoen Defentsarako Elkartearen Federazioak argitaratutako txostenaren arabera; ikuspuntu honetatik ongien zegoena Kantabriako erkidegoa zen, eta Valentziakoa zegoen azkeneko lekuan.

2011n Nafarroa ranking horretako lehenengo lekuan dago, 2010ean lortu zuen lekuari eutsiz. Balioespen txarrena Valentziako erkidegoak du orain ere.

## VI. AURRERANTZERAKO JOKABIDEEI BURUZKO IRADOKIZUNAK

Kontuen Ganberaren 2003ko txostenean gastuari buruz, diru-sarrerari buruz eta oro har aplikatzeak izan zitezkeen zenbait jardunbide adierazten ziren.

Jardunbide horietako batzuk dagoeneko bete dira, edo betetzen ari dira une honetan:

- Apirilaren 12ko 19/2010 Foru Dekretua, Nafarroako Ospitalegunea sortu eta haren zuzendaritza-egitura ezartzen duenak aldatu egiten du Iruñerriko Osasun Barrutiaren ospitale-antolamenduaren eredia. Bateratze-prozesua burutzen denean, berrantolaketa-neurri horien ondorioen balioespen bat egin ahal izango da.

- Nafarroako Osasun Zerbitzuaren zuzendarikudeatzailearen 1936/2011 erabakiak, sendagaiak printzipio aktiboaren eta izen generikoaren arabera agintzeko nahitaez bete beharreko jarraibideak ematen zituena, 2011ko azaroaren 1ean jarri zen indarrean, eta sendagaiak printzipio aktiboaren arabera agintzera behartzen zuen, horrek Osasun Departamentuaren gastu-kontzepturik zamatsuenetako batean eragiten zuen aurrezpenarekin.

- Apirilaren 20ko 16/2012 Errege Dekretua, Osasun Sistema Nazionalaren iraunkortasuna bermatzeko eta haren zerbitzu-eskaintzaren kalitatea hobetzeko urgentziazko neurriak ematen dituen, urte honetako uztailaren 1ean jarriko da indarrean, eta farmazian eta bestelako eskaintza batzuetan —ortoprotesikoetan eta osasun alorreko garraioan, besteren artean— koordinaketa sartuko du.

Azpian Ganbera honek 2003an egin zituen eta gaur egun ere, kudeaketarako baliagarriak izan litezkeen beste batzuekin batera, aplikagarri izan litezkeen beste proposamen batzuk aipatzen dira.

- Kostuaren eta eraginkortasunaren azterketa egin ondoren baliabideak gutxiago erabiltzeko aukera ematen duten aurreremendu teknologikoak ezartzea.

- Giza baliabideen kudeaketa hobetzea, osasun alorreko langileengandik ahalik eta eraginkortasunik handiena lortzeko, horretarako beharrezkoa ez den jarduera gutxitzen, lan-absentismoaren kudeaketa hobetzen, errendimendua sustatzeko sistemak ezartzen edo ekonomia alorreko eta osasun alorreko langileen arteko koordinazioa hobetzen ahaleginduz.

- Antolamenduari eta egiturari dagozkion aldakuntzak erabakitzerakoan osasun alorreko profesionalen parte hartzea handitzea, haiek baitira zerbitzuen funtzionamenduari buruzko informazio baliagarri gehien dutenak.

- Geroago tratamendu garestiagoak erabili beharra itzurtzen edo aldatzen duten prebentziozko sendagintzako teknikak bultzatzea.

- Gerora izan daitezkeen auzi-eskeen arriskua dela-eta egiten den defentsazko medikuntza deitua-aren kostua eta eraginkortasuna baloratzea, eta adostutako jarduera-protokoloak prestatzea.

- Itxaro-zerrendei dagokienez, zerrenda horiek sorrarazten dituzten arazoak aztertzea eta gero, osasun alorreko baliabideen planifikazioa eta kudeaketa, itxaro-zerrenden kudeaketa eta kudeaketa klinikoa bera ere hobetzea.

- Zerbitzu hitzartuen kudeaketa hobetzea, horretarako antzeko zerbitzuetarako tarifa berbe-

rak finkatuz, arreta hitzartuaren kalitatea neurtzeko adierazleak finkatuz eta hitzartutakoz zerbitzuak emateko bestelako aukerak aztertuz.

- Hasitako kostu-sistema ezartzeko prozesua burutzea eta erabakiak hartzeko beste baliabide bat bezala erabiltzea.
- Herritarren eta kudeatzaileen artean osasunak preziorik ez duela baina kostua baduela kontzientzia zabaltzea.
- Aurrekontuak O-NOZek egiaz dituen premien arabera egitea, osasun alorreko gastuaren kontabilitatean desegokierarik izan ez dadin.
- Herritarren artean osasun alorreko gastuaren irismena aurrekontuetako diru-sarrerek mugatzen duelako ideia zabaltzea eta gizartearen itxaropenen eta finantzatzeko ahalmenen arteko adostasun-bidea bilatzea.

Ganbera honen 2003ko txostenean esaten zen bezala, neurri hauetako batzuk martxan jartzeak aldaketak ekar ditzake zerbitzu-eskaintzan eta osasun alorreko gastua bidezkoagoa izan dadin lagundu dezake; horregatik sistemaren produktibitateari begiratu behar zaio, eragin negatiboak ahalik eta gutxien izan daitezen. Horrez gainera, martxan jarri aurretik azterketa zorrotz bat egin beharko litzateke horien alderdi ekonomikoez (kostu-sistema batean oinarrituta), sozialez eta bestelakoez, gaur egungo egoera ekonomikoa kontuan hartuta erabakirik zuzenena hartu ahal izateko.

Txosten hau Karen Moreno Orduña auditore andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna, indarrean dagoen araudiak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2012ko abuztuaren 2an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

**ERANSKINA: NAFARROA – AUTONOMIA ERKIDEGOAK ADIERAZLEEN ALDERAKETA 2001-2009**

## I.I. Osasun Sistema Nazionalaren babespean dagoen biztanle bakoitzeko osasun alorreko gastua

Autonomia Erkidegoa	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	Aldaketa, ehunekotan 2009/2001
Andaluzia	791	843	909,	980	1.027	1.113	1.167	1.331	1.310	66
Aragoi	899	955	1.069	1.168	1.209	1.321	1.420	1.512	1.611	79
Asturias	872	946	1.061	1.136	1.205	1.284	1.367	1.481	1.662	90
Balear Uharteak	677	790	882	957	1.129	1.118	1.216	1.265	1.301	92
Kanariak	840	911	1.001	1.047	1.153	1.227	1.311	1.446	1.494	78
Kantabria	921	1.015	1.163	1.243	1.331	1.403	1.496	1.378	1.407	53
Gaztela eta Leon	840	898	1.029	1.093	1.178	1.342	1.298	1.510	1.472	75
Gaztela-Mantxa	774	879	936	923	1.157	1.287	1.288	1.304	1.507	95
Katalunia	817	882	970	1.002	1.060	1.170	1.284	1.380	1.449	77
Valentziako Erkidegoa	790	846	934	990	1.066	1.113	1.196	1.27	1.353	71
Extremadura	826	969	1.073	1.136	1.215	1.332	1.499	1.616	1.695	105
Galizia	864	904	983	1.090	1.123	1.232	1.316	1.442	1.507	74
Madrilgo Erkidegoa	788	831	871	980	1.026	1.092	1.188	1.261	1.335	69
Murtzia	806	882	974	1.061	1.142	1.218	1.326	1.582	1.646	104
Nafarroa	961	1.014	1.089	1.167	1.204	1.285	1.400	1.514	1.634	70
EAE	894	976	1.048	1.118	1.218,	1.293	1.438	1.577	1.692	89
Errioxa	834	913	998	1.116	1.234	1.557	1.884	1.549	1.515	82
Ceuta	839	909	1.019	1.124	1.186	1.247	1.310	1.516	1.565	87
Melilla	1.011	1.049	1.131	1.278	1.465	1.497	1.594	1.730	1.724	71
Espainia	818	881	961	1.028	1.100	1.189	1.272	1.382	1.364	67

Iturria: Osasun Eremuko Gastu Publikoaren Estatistika eta Osasun Alorreko Gastua Aztertzeko Lehendakarien Konferentziako Lantaldea, Estatuaren Kontu-hartzailetza Orokorren lehendakaritzapean.

## I.2. Osasun eremuko gastu publikotik hitzartutako zerbitzuetarako erabilitako gastuaren portzentajea

Autonomia Erkidegoa	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2009/2001 aldaketa (%)
Andaluzia	5,19	5,01	4,76	4,62	4,78	4,17	4,65	4,29	4,72	-9
Aragoi	3,00	3,47	3,52	3,84	3,66	3,99	3,85	4,2	3,88	29
Asturias	5,67	6,14	5,26	7,11	6,97	6,99	6,66	7,01	6,68	18
Balear Uharteak	5,13	4,25	3,82	5,07	4,65	4,98	4,6	4,65	4,75	-7
Kanariak	10,03	9,7	10,21	8,78	9,67	9,92	9,79	9,51	9,6	-4
Kantabria	3,48	3,64	5,63	5,51	6,42	7,09	7,92	2,31	3,78	9
Gaztela eta Leon	5,07	4,74	4,83	5,02	4,65	4,35	4,48	4,45	3,95	-22
Gaztela-Mantxa	5,93	5,8	6,08	4,87	7,6	6,26	5,36	5,24	3,66	-38
Katalunia	36,53	36,93	35,41	35,51	35,92	31,25	30,24	29,76	25,45	-30
Valentziako Erkidegoa	4,86	5,05	4,91	5,19	6,12	6,68	6,02	6,36	5,84	20
Extremadura	4,60	6,28	4,71	4,26	4,36	4,04	3,79	3,74	3,96	-14
Galizia	5,43	5,57	5,43	7,88	2,9	6,03	5,97	5,81	5,63	4
Madrilgo Erkidegoa	5,16	5,32	5,93	6,22	6,07	5,87	6,01	6,21	7,57	47
Murtzia	6,56	7,25	7,38	7,55	7,73	7,79	7,17	7,95	7,07	8
Nafarroa	4,69	4,91	4,76	4,72	4,76	5,46	5,49	5,85	6,46	38
EAE	6,39	6,45	6,35	6,47	6,81	6,85	7,05	7,19	7,12	11
Errioxa	2,62	2,64	2,67	3,88	4,8	5,04	4,45	6,01	6,99	167
Ceuta	5,38	5,2	5,62	5,63	5,54	5,55	5,12	5,74	5,95	11
Melilla	4,53	5	4,82	4,85	4,94	5,34	5,17	5,16	5,31	17
Espania	11,02	10,52	10,35	10,41	10,4	9,87	9,77	9,62	9,04	-18

Iturria: Osasun Sistema Nazionalaren Giltzarrizko Adierazleak eta Osasun Alorreko Gastua Aztertzeke Lehendakarien Konferentziako Lantaldea, Estatuaren Kontu-hartzailetza Orokorren lehendakaritzapean.

## I.3. 1.000 biztanleko funtzionatzen dagoen ospitaleko ohe kopurua

Autonomia Erkidegoa	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2009/2001 aldaketa (%)
Andaluzia	2,21	2,13	2,07	2,02	1,95	1,92	1,89	1,82	1,79	-19
Aragoi	3,43	3,41	3,37	3,31	3,24	3,17	3,09	3,07	3,05	-11,
Asturias	2,68	2,89	3,00	2,92	2,98	2,99	2,99	2,94	2,93	9,
Balear Uharteak	2,60	2,49	2,32	2,26	2,18	2,10	2,26	2,22	2,17	-17
Kanariak	2,73	2,58	2,54	2,47	2,43	2,21	2,18	2,13	2,11	-23
Kantabria	2,64	2,61	2,64	2,58	2,59	2,43	2,50	2,45	2,37	-10
Gaztela eta Leon	3,04	2,91	2,87	2,85	2,67	2,79	2,75	2,73	2,77	-9
Gaztela-Mantxa	2,54	2,50	2,45	2,41	2,35	2,38	2,40	2,40	2,42	-5
Katalunia	2,78	2,77	2,62	2,55	2,52	2,53	2,47	2,41	2,36	-15
Valentziako Erkidegoa	2,28	2,22	2,18	2,16	2,09	2,07	2,07	2,01	2,02	-11
Extremadura	3,24	3,25	3,25	3,14	3,16	3,13	3,17	3,27	3,22	-0,5
Galizia	2,90	2,83	2,95	2,97	2,95	2,95	2,98	2,94	2,94	1
Madrilgo Erkidegoa	2,20	2,13	2,17	2,14	2,13	2,11	2,09	2,20	2,09	-5
Murtzia	2,21	2,05	2,06	2,11	2,14	2,14	2,06	2,01	1,99	-10
Nafarroa	2,51	2,41	2,34	2,30	2,27	2,25	2,24	2,26	2,20	-12
EAE	2,58	2,59	2,60	2,65	2,67	2,63	2,64	2,60	2,58	0,04
Errioxa	3,09	3,05	3,03	2,93	2,73	2,72	2,67	2,61	2,42	-22
Ceuta	3,17	3,22	3,19	2,59	2,59	2,54	2,53	2,72	2,55	-20
Melilla	2,94	3,00	2,99	3,00	3,00	2,88	2,87	2,38	2,41	-18
Espainia	2,56	2,50	2,47	2,43	2,38	2,36	2,34	2,31	2,28	-11

Iturria: Barnetegi Araubideko Osasun Establezimenduen Estatistika

## I.4. 1.000 biztanleko ospitaleratze kopurua

Autonomia Erkidegoa	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2009/2001 aldaketa (%)
Andaluzia	82,07	81,44	80,93	80,26	78,11	76,17	75,51	74,10	71,69	-13
Aragoi	105,76	105,57	106,74	104,74	104,44	104,18	104,64	102,69	101,87	-4
Asturias	91,09	98,56	106,50	102,75	105,06	108,09	108,90	109,29	108,13	19
Baleiar Uharteak	79,54	77,56	82,32	78,17	76,26	74,05	75,77	76,62	75,29	-5
Kanariak	61,26	63,18	63,67	62,66	60,51	61,04	60,42	61,49	60,68	-1
Kantabria	89,01	90,64	92,14	92,24	94,00	95,51	93,84	92,54	92,01	3
Gaztela eta Leon	100,36	100,27	100,73	100,70	98,48	101,19	101,68	99,40	101,65	1
Gaztela-Mantxa	87,00	88,43	89,10	89,48	88,82	88,48	89,23	91,77	91,73	5
Katalunia	103,32	104,03	102,05	101,51	100,00	101,56	99,91	100,89	95,96	-7
Valentziako Erkidegoa	91,35	91,42	91,31	89,84	86,33	84,31	84,44	83,51	81,89	-10
Extremadura	89,73	92,13	95,57	93,68	96,79	96,88	100,92	100,29	103,78	16
Galizia	84,30	83,87	90,12	89,54	90,90	93,15	91,22	91,20	89,75	6
Madrilgo Erkidegoa	73,29	71,57	75,23	76,53	77,25	76,84	77,75	77,21	79,78	9
Murtzia	89,81	88,22	92,33	92,25	91,37	86,60	84,45	82,26	80,30	-11
Nafarroa	95,97	95,80	95,68	93,69	93,90	96,21	95,97	98,91	96,96	1
EAE	100,40	95,28	97,56	98,87	98,11	100,21	102,39	104,81	104,14	4
Errioxa	98,15	97,44	97,50	92,40	88,47	88,68	88,50	87,05	86,00	-12
Ceuta	119,63	101,01	102,12	105,67	107,81	111,49	110,17	106,38	102,10	-15
Melilla	104,87	109,74	102,39	98,34	101,42	98,66	98,40	98,68	94,04	-10
Espainia	88,44	88,18	89,38	88,81	87,74	87,67	87,47	87,20	85,97	-3

Iturria: Barnetegi Araubideko Osasun Establezimenduen Estatistika

I.5. 1.000 biztanleko ospitaleko egonaldiak<sup>(3)</sup>

Autonomia Erkidegoa	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2009/2001 aldaketa (%)
Andaluzia	629,66	620,17	613,12	591,91	575,96	563,98	557,64	535,47	516,82	-18
Aragoi	1018,46	1008,34	1.009,63	987,46	979,28	936,16	929,98	915,91	897,67	-12
Asturias	809,94	883,39	914,70	889,74	903,32	903,68	906,00	891,12	874,28	8
Balear Uharteak	727,23	713,99	712,63	640,55	641,99	613,17	625,93	631,58	597,85	-18
Kanariak	840,27	805,13	810,12	772,10	765,63	679,51	658,02	641,63	634,24	-25
Kantabria	833,65	835,14	815,92	813,24	809,49	774,29	779,12	739,78	706,34	-15
Gaztela eta Leon	838,21	824,57	826,29	823,32	769,44	797,93	814,75	800,82	780,48	-7
Gaztela-Mantxa	739,86	730,41	722,24	705,18	695,65	704,86	707,40	700,82	690,74	-7
Katalunia	863,79	871,12	821,48	799,84	787,64	770,16	770,34	750,71	715,95	-17
Valentziako Erkidegoa	671,41	657,63	656,21	636,38	616,37	602,56	598,48	583,99	568,73	-15
Extremadura	918,14	917,48	939,47	898,70	908,54	895,63	898,66	893,85	881,23	-4
Galizia	859,25	864,21	908,61	917,27	918,93	917,66	913,08	894,02	861,90	0,31
Madrilgo Erkidegoa	664,79	653,61	669,73	660,19	658,87	646,51	643,31	649,17	642,41	-3
Murtzia	634,73	625,17	617,45	616,18	631,68	608,80	604,82	589,25	581,94	-8
Nafarroa	703,36	683,91	672,30	658,51	654,69	648,68	637,90	635,52	596,30	-15
EAE	802,86	810,10	813,40	827,51	830,67	805,09	820,38	802,23	783,31	-2
Errioxa	908,61	900,63	861,04	821,36	750,94	712,06	715,55	720,18	728,50	-20
Ceuta eta Melilla	678,30	626,30	658,25	676,52	692,53	626,78	628,34	606,79	610,11	-10
Espania	756,86	751,41	747,53	730,80	719,98	704,35	702,35	688,30	668,63	-12

Iturria: Barnetegi Araubideko Osasun Establezimenduen Estatistika

(3) Ceuta eta Melillako datuak bateratuta eskaintzen dira.



## 1.6. Batez besteko egonaldia

Autonomia Erkidegoa	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2010/2001 aldaketa (%)
Andaluzia	7,98	7,88	7,81	7,67	7,74	7,56	7,67	7,50	7,46	7,30	-9
Aragoi	8,15	8,14	7,86	7,79	8,03	7,77	7,82	7,91	7,85	7,65	-6
Asturias	8,60	8,77	8,64	8,69	8,27	8,44	8,32	8,35	8,17	8,02	-7
Balearr Uharteak	7,05	7,22	7,11	7,01	7,03	6,95	7,13	7,00	7,07	6,81	-3
Kanariak	9,71	9,34	9,21	8,96	9,21	9,00	8,94	8,35	8,27	8,13	-16
Kantabria	8,30	8,49	8,17	8,04	7,96	7,74	8,01	7,87	7,67	7,42	-11
Gaztela eta Leon	7,55	7,50	7,49	7,66	7,70	7,63	7,78	7,90	7,67	7,51	-1
Gaztela-Mantxa	7,51	7,32	7,27	7,22	7,29	7,40	7,47	7,20	7,09	7,12	-5
Katalunia	7,07	7,02	6,95	6,86	6,79	6,66	6,51	6,44	6,36	6,44	-9
Valentziako Erkidegoa	6,70	6,64	6,70	6,70	6,60	6,46	6,46	6,39	6,31	6,15	-8
Extremadura	7,56	7,37	7,16	6,91	6,92	6,86	6,79	6,82	6,77	6,63	-12
Galizia	9,11	9,09	8,99	9,13	9,10	8,96	9,10	9,00	8,88	8,89	-2
Madrilgo Erkidegoa	8,80	8,73	8,64	8,33	8,32	8,15	8,10	8,12	8,01	7,83	-11
Murtzia	7,08	6,88	6,89	6,91	7,09	6,93	7,10	7,32	7,15	6,96	-2
Nafarroa	7,40	7,19	7,12	7,10	7,36	7,14	7,20	6,66	6,90	6,74	-9
EAE	7,24	7,34	7,22	7,47	7,58	7,17	7,73	7,42	7,24	7,05	-3
Errioxa	7,13	7,04	6,95	7,30	6,66	6,44	6,37	6,58	6,48	6,29	-12
Ceuta	5,57	5,72	5,73	5,80	5,86	5,59	5,79	5,87	6,08	6,12	10
Melilla	6,69	6,54	6,88	7,57	7,42	6,88	6,47	6,18	6,49	6,20	-7
Spainia	7,77	7,72	7,64	7,58	7,59	7,45	7,48	7,40	7,31	7,20	-7

Iturria: Barnetegi Araubideko Osasun Establezimenduen Estatistika

## 1.7. Ebakuntzak, 1.000 biztanleko

Autonomia Erkidegoa	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2009/2001 aldaketa (%)
Andaluzia	64,31	64,45	67,82	71,25	70,37	68,43	66,77	66,84	65,49	2
Aragoi	68,21	68,53	69,96	66,17	67,02	65,83	65,86	65,95	70,15	3
Asturias	55,66	58,57	57,19	58,03	59,09	59,48	63,51	62,11	65,86	18,
Balear Uharteak	45,01	44,99	49,39	51,58	53,80	56,18	55,15	57,43	53,24	18
Kanariak	39,13	41,55	42,85	43,81	42,88	37,24	37,32	41,34	37,24	-5
Kantabria	53,87	52,02	52,56	56,91	56,90	55,72	49,49	55,92	57,03	6
Gaztela eta Leon	59,90	59,97	59,11	58,97	60,18	63,79	62,43	65,18	66,22	11
Gaztela-Mantxa	55,33	59,09	60,33	62,03	62,93	62,43	61,46	66,15	70,13	27
Katalunia	78,80	81,56	85,58	85,48	86,89	86,69	89,13	91,34	91,23	16
Valentiako Erkidegoa	62,72	65,01	63,82	65,47	66,34	66,13	68,77	69,59	71,64	14
Extremadura	56,52	58,58	65,41	64,76	67,28	68,53	71,44	72,10	71,55	27
Galizia	55,20	54,11	58,12	61,20	65,17	69,35	68,30	69,53	66,75	21
Madrilgo Erkidegoa	56,85	55,71	61,21	59,92	61,97	61,09	61,37	60,69	66,38	17
Murtzia	54,56	53,75	55,77	57,25	55,51	56,77	57,40	54,82	55,26	1
Nafarroa	67,82	70,69	73,50	71,75	63,20	74,81	69,34	61,33	65,02	-4
EAE	61,30	61,76	63,39	65,82	62,26	66,19	68,37	70,61	71,09	16
Errioxa	74,05	75,27	70,58	68,40	76,41	68,74	66,60	73,96	75,76	2
Ceuta	61,18	54,12	65,28	60,95	61,91	52,11	65,78	59,39	58,49	-4
Melilla	56,28	73,81	53,69	55,71	55,56	119,92	53,91	51,00	51,53	-8
Espainia	61,87	62,77	65,37	66,40	67,04	67,10	67,44	68,45	69,26	12

Iturria: Barnetegi Araubideko Osasun Establezimenduen Estatistika

## 1.8. Ospitaleraturik egindako ebakuntzen portzentajea

(ehunekoak)

Autonomia Erkidegoa	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2009/2001 aldaketa
Andaluzia	49,1	49,2	46,4	44,0	43,2	43,2	43,1	43,1	42,0	-14
Aragoi	64,7	61,4	62,1	62,8	61,9	63,0	62,2	59,4	54,9	-15
Asturias	60,9	60,3	63,0	59,6	58,6	58,3	56,4	56,7	56,0	-8
Balear Uharteak	56,2	52,2	54,5	51,0	48,4	44,3	47,9	49,1	51,2	-9
Kanariak	54,8	57,5	58,9	58,4	56,1	63,8	63,0	59,4	56,5	3
Kantabria	61,8	62,0	62,5	57,3	59,9	61,7	62,3	58,2	60,2	-3
Gaztela eta Leon	63,8	66,0	64,1	62,9	60,7	60,0	59,1	60,0	56,6	-11
Gaztela-Mantxa	54,7	53,7	52,3	50,2	49,2	52,2	49,9	46,8	45,9	-16
Katalunia	50,8	48,1	47,9	44,2	43,9	41,7	40,9	39,8	38,9	-23
Valentziako Erkidegoa	62,7	55,9	54,1	52,9	54,1	51,4	49,9	47,9	42,8	-32
Extremadura	65,1	59,2	55,3	54,3	52,8	52,6	51,6	49,2	46,5	-29
Galizia	59,6	57,1	59,2	55,7	55,0	52,8	51,4	51,2	52,1	-13
Madrilgo Erkidegoa	55,6	54,5	54,9	54,4	52,0	52,0	51,7	50,3	47,7	-14
Murtzia	52,3	53,0	55,2	54,9	48,8	46,2	45,5	47,3	47,9	-8
Nafarroa	58,5	55,9	57,5	62,2	60,7	59,3	65,0	67,4	61,3	5
EAE	52,5	51,6	51,8	50,5	50,1	50,0	48,4	47,2	48,5	-8
Errioxa	42,9	41,3	44,2	39,8	37,0	38,8	38,0	37,4	35,5	-17
Ceuta eta Melilla	59,4	46,8	45,0	49,3	52,0	43,8	48,3	51,1	51,5	-13
Espania	55,3	53,5	52,8	50,8	49,8	49,2	48,4	47,5	45,9	-17

Iturria: Barnetegi Araubideko Osasun Establezimenduen Estatistikan oinarrituta geuk prestatua.

## 1.9. Ospitaleko larrialdiak, 1.000 biztanleko

Autonomia Erkidegoa	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2009/2001 aldaketa (%)
Andaluzia	469,51	478,74	494,92	502,13	508,41	519,20	534,54	519,26	533,29	14
Aragoi	398,75	420,18	434,13	431,18	435,63	442,13	454,75	438,03	435,26	9
Asturias	332,03	361,68	417,06	409,87	418,46	434,74	444,27	447,26	445,24	34
Balearr Uharteak	359,57	395,18	373,88	380,25	380,30	389,26	426,51	426,03	428,61	19
Kanariak	294,60	294,59	300,51	298,53	298,26	300,22	319,25	314,83	315,34	7
Kantabria	491,44	495,27	560,98	570,88	589,23	591,76	591,03	572,69	575,96	17
Gaztela eta Leon	345,39	352,95	367,66	363,01	364,81	374,59	381,23	373,75	385,65	12
Gaztela-Mantxa	360,12	371,35	384,97	393,76	391,32	399,34	431,99	445,61	450,31	25
Katalunia	541,72	559,46	545,30	526,07	523,10	541,51	531,93	516,06	505,74	-7
Valentziako Erkidegoa	464,87	481,15	487,64	470,41	472,03	460,63	463,48	448,18	440,47	-5
Extremadura	374,87	382,76	405,64	405,80	414,77	431,23	451,48	455,36	460,76	23
Galizia	340,86	352,41	404,59	400,37	408,30	417,06	413,34	411,23	417,18	22
Madrilgo Erkidegoa	388,96	389,84	410,99	405,02	407,35	412,41	405,80	416,33	439,24	13
Murtzia	560,68	576,54	583,43	572,97	578,82	558,91	555,19	529,82	533,96	-5
Nafarroa	433,87	426,04	434,17	427,01	421,38	429,88	432,19	415,25	409,58	-6
EAE	404,56	418,63	430,95	432,09	433,65	438,30	428,86	426,36	427,47	6
Errioxa	399,60	400,81	402,54	394,24	379,27	399,24	384,36	361,20	363,66	-9
Ceuta eta Melilla	694,12	736,45	801,53	835,01	826,15	842,23	821,68	775,85	803,35	16
Spainia	430,37	442,02	455,46	450,76	453,37	460,48	464,86	457,25	461,96	7

Iturria: Barnetegi Araubideko Osasun Establezimenduen Estatistika

1.10. Oinarrizko arretako kontsultak, 1.000 biztanleko<sup>(4)</sup>

Autonomia Erkidegoa	2007	2008	2009	2010	2010/2007 aldaketa (%)
Andaluzia	10.446,69	11.326,48	10.346,13	9.232,32	-12
Aragoi	9.752,82	9.282,13	7.838,05	8.376,13	-14
Asturias	10.052,18	9.621,01	9.121,85	8.247,26	-18
Balear Uharteak	7.442,12	7.566,36	7.283,03	7.014,43	-6
Kanariak	6.946,63	7.313,62	7.145,11	6.916,90	-0,4
Kantabria	9.376,49	9.689,62	8.962,86	8.667,45	-8
Gaztela eta Leon	12.995,35	12.980,12	13.078,53	12.145,22	-7
Gaztela-Mantxa	11.421,99	12.217,42	12.234,03	12.523,04	10
Katalunia	0,00	0,00	5.829,13	5.399,86	-
Valentziako Erkidegoa	6.569,37	7.827,66	7.543,11	7.654,50	17
Extremadura	16.157,40	14.912,28	14.344,15	11.293,05	-30
Galizia	7.693,18	8.772,79	8.734,22	9.042,49	18
Madrilgo Erkidegoa	8.194,13	8.138,46	8.503,04	8.092,18	-1
Murtzia	9.587,92	9.800,78	9.007,68	8.975,30	-6,
Nafarroa	9.362,50	9.482,27	10.168,58	9.040,27	-3
EAE	8.086,77	8.850,82	8.696,15	7.781,03	-4
Errioxa	6.142,67	6.648,55	7.739,44	4.969,45	-19
Ceuta eta Melilla	16.321,57	17.170,62	17.632,89	16.328,74	0,04
Espainia	9.252,77	9.533,39	9.678,22	8.983,31	-3

Iturria: Oinarrizko Arretako Informazio Sistema.

(4) 2007-2010 bitarteko aldiari buruz baizik ez dago informaziorik, eta Kataluniari dagokionez, 2009 eta 2010 urteei buruz baizik ez. Ceutari eta Melillari dagokionez, informazioa ez dago berezita, dena batera hartuta baizik.

## 1.11. Arreta espezializatuko kontsultak, 1.000 biztanleko

Autonomia Erkidegoa	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2009/2001 aldaketa (%)
Andaluzia	1.372,85	1.360,26	1.324,69	1.390,43	1.375,49	1.365,68	1.396,15	1.414,02	1.387,01	1
Aragoi	1.846,32	1.868,52	1.883,44	1.913,51	1.892,03	1.804,28	1.775,66	1.792,43	1.822,69	-1
Asturias	1.420,23	1.517,76	1.654,59	1.728,31	1.705,57	1.725,90	1.775,82	1.797,49	1.779,61	25
Balear Uharteak	1.150,36	1.117,31	1.142,43	1.165,07	1.171,88	1.193,04	1.204,20	1.174,58	1.260,75	10
Kanariak	1.364,51	1.382,50	1.415,98	1.438,91	1.401,87	1.359,41	1.343,72	1.364,77	1.550,92	14
Kantabria	1.380,90	1.369,59	1.431,25	1.427,24	1.433,27	1.458,50	1.435,55	1.503,75	1.499,68	9
Gaztela eta Leon	1.471,23	1.463,13	1.485,95	1.507,03	1.490,39	1.502,38	1.506,55	1.511,63	1.555,13	6
Gaztela-Mantxa	1.340,33	1.372,04	1.438,38	1.482,90	1.507,20	1.537,34	1.563,45	1.615,61	1.692,33	26
Katalunia	1.276,99	1.336,19	1.317,97	1.335,38	1.332,59	1.318,24	1.366,26	1.426,24	1.405,12	10
Valentziako Erkidegoa	1.572,79	1.599,96	1.575,89	1.599,12	1.564,52	1.535,63	1.617,81	1.555,69	1.557,85	-1
Extremadura	1.294,68	1.319,35	1.396,57	1.413,52	1.413,84	1.373,22	1.405,64	1.391,38	1.412,74	9
Galizia	1.456,83	1.492,77	1.616,17	1.608,38	1.613,52	1.640,49	1.655,67	1.662,88	1.665,02	14
Madrilgo Erkidegoa	1.637,20	1.606,78	1.649,86	1.677,98	1.649,68	1.705,36	1.720,94	1.715,86	1.839,90	12
Murtzia	1.674,97	1.629,37	1.661,83	1.572,63	1.511,48	1.493,46	1.497,38	1.492,17	1.528,68	-9
Nafarroa	1.484,44	1.495,10	1.476,85	1.457,76	1.404,74	1.428,32	1.467,89	1.539,70	1.439,54	-3
EAE	741,20	757,83	790,03	812,50	812,97	860,13	885,22	929,39	951,85	28,
Errioxa	1.401,76	1.461,54	1.430,97	1.445,86	1.523,28	1.940,38	1.694,74	1.832,08	1.713,57	22
Ceuta	1.787,13	1.584,72	1.546,15	1.511,57	1.570,07	1.459,32	1.357,68	1.299,48	1.316,30	-26
Melilla	1.789,38	1.446,54	1.423,22	1.414,57	1.376,32	1.334,63	1.367,69	1.317,58	1.288,67	-28
Espania	1.410,93	1.423,36	1.440,91	1.467,30	1.452,72	1.457,42	1.484,25	1.498,40	1.525,01	8

Iturria: Oinarritzko Arretako Informazio Sistema.

## 1.12. Berrito ospitaleratzeko tasa

Autonomia Erkidegoa	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2009/2001 aldaketa (%)
Andaluzia	7,21	7,00	6,96	6,93	7,00	7,04	7,06	6,97	6,89	-4
Aragoi	5,90	6,25	5,93	6,04	5,96	6,08	6,08	6,10	5,97	1
Asturias	7,46	8,31	8,25	8,27	8,52	8,93	9,08	8,80	8,36	12
Balear Uharteak	7,16	7,53	7,36	7,04	7,04	7,01	7,51	7,40	7,33	2
Kanariak	6,02	5,66	5,76	5,35	5,52	5,53	5,27	5,16	5,35	-11
Kantabria	6,49	6,40	6,54	6,65	6,69	7,11	7,17	6,75	7,02	8
Gaztela eta Leon	8,07	8,05	8,09	8,40	8,79	8,53	8,77	9,00	9,12	13
Gaztela-Mantxa	8,01	8,02	8,35	8,16	8,42	8,25	8,34	8,24	8,29	3
Katalunia	5,84	6,09	6,01	6,08	6,21	6,29	6,42	6,34	6,41	10
Valentziako Erkidegoa	7,39	7,47	7,55	7,49	7,47	7,45	7,66	7,77	7,82	6
Extremadura	6,71	7,08	7,22	7,63	7,90	7,89	8,12	8,34	8,52	27
Galizia	7,91	8,46	8,33	8,63	8,54	8,84	8,66	9,02	8,57	8
Madrilgo Erkidegoa	6,05	6,11	6,28	6,39	6,53	6,44	6,44	6,26	6,72	11
Murtzia	7,65	8,00	8,03	7,91	8,46	7,59	7,99	8,17	7,74	1
Nafarroa	5,29	5,39	5,39	5,27	5,32	5,49	5,49	5,76	5,33	1
EAE	6,40	6,68	6,59	7,05	7,29	7,23	7,56	7,64	7,71	21
Errioxa	6,56	6,71	6,58	6,58	8,12	8,17	7,09	6,97	7,49	14
Ceuta	10,36	10,53	9,98	10,51	9,27	9,16	8,97	9,55	9,15	-12
Melilla	7,40	7,34	7,23	7,01	7,48	8,28	6,50	6,97	7,61	3
Espainia	6,83	6,96	6,97	7,03	7,17	7,17	7,25	7,25	7,27	6

Iturria: Osasun Sistema Nazionaleko ospitaleetako Oinarrizko Datuen Gutxieneko Multzoko (ODGM) ospitaleetako alden erregistroa.

1.13. Herritarrek osasun sistema publikoaren funtzionamenduari buruz duten asebetetze-maila<sup>(5)</sup> (1etik 10era)

Autonomia Erkidegoa	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2010/2002 aldaketa (%)
Andaluzia	5,52	5,80	5,98	6,14	6,07	6,31	6,29	6,29	6,35	15
Aragoi	6,40	6,50	6,23	6,41	6,71	6,86	6,68	6,80	7,20	13
Asturias	7,28	7,10	7,40	7,26	7,35	7,42	7,08	7,21	7,71	6
Balearr Uharteak	5,98	5,79	6,05	5,83	6,58	6,66	6,47	6,60	6,75	13
Kanariak	5,45	5,34	5,60	5,37	5,42	5,15	5,44	5,40	6,04	11
Kantabria	6,20	5,91	6,30	6,33	6,69	6,47	6,25	6,28	6,70	8
Gaztela eta Leon	6,13	6,37	6,15	6,40	6,39	6,64	6,80	6,82	7,01	14
Gaztela-Mantxa	6,14	6,21	6,62	6,61	6,28	6,42	6,21	6,79	6,82	11
Katalunia	5,93	5,80	6,09	5,96	6,18	6,02	6,19	6,02	6,49	9
Valentziako Erkidegoa	6,15	6,27	6,06	6,12	6,17	6,36	6,21	6,45	6,43	5
Extremadura	5,68	5,89	6,16	6,30	6,14	6,14	6,17	6,29	6,46	14
Galizia	5,40	5,62	5,41	5,56	5,52	5,84	5,87	5,91	6,10	13
Madrilgo Erkidegoa	5,79	5,80	5,92	6,10	6,28	6,23	6,22	6,42	6,64	15
Murtzia	5,74	6,34	6,31	6,01	6,27	5,93	6,12	6,21	6,46	13
<b>Nafarroa</b>	<b>6,97</b>	<b>7,18</b>	<b>7,20</b>	<b>6,71</b>	<b>6,58</b>	<b>6,82</b>	<b>7,00</b>	<b>7,19</b>	<b>7,06</b>	<b>1</b>
EAE	6,81	7,15	6,80	6,51	6,83	6,48	6,72	6,74	6,96	2
Errioxa	6,58	6,47	6,76	6,56	6,97	6,98	6,92	6,97	6,99	6
Ceuta	-	-	-	-	-	-	6,08	6,29	6,02	-
Melilla	-	-	-	-	-	-	6,12	5,90	5,95	-
Spainia	5,94	6,05	6,12	6,14	6,23	6,27	6,28	6,35	6,57	11

Iturria: Osasunaren Barometroa.

(5) 2010 arteko informazioa dago, baina Ceutaren eta Melillaren kasuan 2008az geroztikoa baizik ez.



1.14. Autonomia-erkidegoek osasun-zerbitzu publikoen eskaintzari buruz duten maila erlatiboa<sup>(6)</sup>

Lekua	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011
1	Kantabria	Kantabria	Kantabria	Aragoi	Asturias	Extremadura	Nafarroa	Nafarroa
2	Extremadura	Extremadura	Nafarroa	Nafarroa	Andaluzia	EAE	Asturias	Asturias Gaztela eta Leon
3	Nafarroa	Aragoi	Extremadura	Kantabria	Nafarroa	Nafarroa	Gaztela-Mantxa	
4	EAE	Nafarroa	Asturias	Asturias	EAE	Gaztela eta Leon	Gaztela eta Leon	Aragoi
5	Aragoi	Asturias	EAE	EAE	Katalunia	Katalunia	Aragoi	EAE
6	Asturias	EAE	Aragoi	Extremadura	Leon	Andaluzia	Balear Uharteak	Gaztela- Mantxa
7	Gaztela- Mantxa	Gaztela eta Leon	Gaztela eta Leon	Gaztela- Mantxa	Gaztela- Mantxa	Kantabria	Extremadura	Kantabria
8	Errioxa	Errioxa	Andaluzia	Leon	Extremadura	Aragoi	EAE	Errioxa
9	Andaluzia	Gaztela- Mantxa	Errioxa	Katalunia	Aragoi	Asturias	Errioxa	Extremadura
10	Gaztela eta Leon	Katalunia	Gaztela- Mantxa	Errioxa	Balear Uharteak	Gaztela- Mantxa	Andaluzia	Katalunia
11	Katalunia	Balear Uharteak	Galizia	Andaluzia	Errioxa	Galizia	Kantabria	Balear Uharteak
12	Balear Uharteak	Andaluzia	Katalunia	Balear Uharteak	Kantabria	Balear Uharteak	Katalunia	Andaluzia
13	Kanariak	Kanariak	Uharteak	Galizia	Galizia	Murtzia	Murtzia	Murtzia
14	Galizia	Murtzia	Madrilgo Erkidegoa	Kanariak	Madrilgo Erkidegoa	Errioxa	Madrilgo Erkidegoa	Galizia
15	Murtzia	Galizia	Kanariak	Madrilgo Erkidegoa	Murtzia	Madrilgo Erkidegoa	Galizia	Madrilgo Erkidegoa
16	Madrilgo Erkidegoa	Madrilgo Erkidegoa	Valentziako Erkidegoa	Murtzia	Kanariak	Kanariak	Kanariak	Kanariak
17	Valentziako Erkidegoa	Valentziako Erkidegoa	Murtzia	Valentziako Erkidegoa	Valentziako Erkidegoa	Valentziako Erkidegoa	Valentziako Erkidegoa	Valentziako Erkidegoa

Iturria: Osasun Zerbitzu Publikoen Defentsarako Elkartearen Federazioa

(6) Txosten hauetan ez dira sartzen Ceuta eta Melilla, daturik ez dagoenez. 2008tik aurrera parametro gehiago hartzen dira kontuan, erkidego bakoitzaren puntuaketa kalkulatzeko.

## OSASUNeko KONTSEILARIAK BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTURIKO ALEGAZIOAK

Nafarroako Kontuen Ganberak, 2012ko uztailaren 27an, Osasun Departamentura bidali du "Nafarroako osasun alorreko gastua 2001-2011" behin-behineko txostena, hark horren berri izan dezan eta, hala badagokio, alegazioak aurkez ditzan.

Txosten honi buruzko zenbait iruzkin eta oharpen bidaltzerakoan adierazi zen bezala, Osasun Departamentu honek oso gauza positibotzat irizten dio txosten hau prestatzeari, zeren, egiten diren alegazio guztiak eta hobetzeko izan litzakeen puntuak gorabehera, politika publikoak aztertzeko balio handiko tresna eskain baitiezaieke osasunaren arretaren munduan diharduten agente guztiei.

Txosten honen edukiak Kontuen Ganberak txosten hori prestatzeko izan zituen helburuak betetzen dituela zalantza jarri gabe ere, gure iritzian interesgarria izango litzateke txostenean jasotzen diren zenbait magnitudek jokatzeko duten bezala zergatik jokatzeko duten sakonagotik aztertzeko eta, azterketa hori eginik, ondorioak osatzeko aprobetxatzea aukera hau.

Txostena ongi aztertu ondoren, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak egindako oharpen gehienak jaso direla ikusi dugu; horregatik, bada, gure alegazioak puntu hauetara mugatzen dira:

- Honela esaten da: "Horren arrazoia transferentzia arruntetan egindako gastuak (errezetengatiko gastuak batez ere, ehuneko 352 handitu baitira, eta 12,76 milioi euro izatetik 57,63 euro izatera igo baitira)". Kontuan hartu behar da, errezetengatiko gastuak, xurgatzaileak ere barnean hartuta, 2001ean 94,0 M€ izatetik 2011n 151.8 M€ izatera iritsi direla, eta horrenbestez ehuneko 61 hazi direla.

Ospitaleko eta ospitalez kanpoko sendagaiak (txertoak), gastu arrunt bezala sailkatuta daudenak, 2. kapituluak alegia, 12.76 M€ izatetik 57,63 M€ izatera aldatu dira, ehuneko 352ko hazkundea, hain zuzen.

Emendio hori, kudeaketa gutxi-asko eraginkor batengatik baino areago, farmazia-industria bioteknologiaren, nanoteknologiaren, giza genomaren eta gisako eremuetan egiten ari den ikerketa-ahalgin handiaren ondorioz, hepatitis, HIES, minbizia eta erreuma-gaixotasunak bezalako gaixotasun larrien eremuan ospitaleetan erabiltzen diren sendagaien bilakaera bizkorrek esplikatzen duela argitu beharrekoa iruditzen zaigu. Ospitalean eskain-

tzen zaizkien tratamendu kronikoen bidez bizirik irauten duen populazioa ugalduz joan ez ezik, ez da ahaztu behar geroz eta sendagai eraginkorragoak erabiltzen direla, baina sendagai horiek askoz ere garestiagoak direla, eta horrenbestez gastu handiagoa egiten dela kontzeptu honetan.

- 7. orrialdeko 1. paragrafoan esaten da ezen Osasun Departamentuaren gastuaren hazkundea handiagoa dela (% 178); uste izatekoa da Nafarroako Gobernu osoaren gastuaren hazkundea (% 189) baino handiagoa esan nahi duela. Hala baldin bada, kontrakoa esan beharko luke zehazki.

- Biztanle bakoitzeko batez beste egiten den osasun alorreko gastuari dagokionez, aztertu diren aldietan % 131 eta % 61 hazi dela esaten da; datu horrekin batera, ordea, beste zenbait informazio eskaini beharko lirateke, hala nola: osasun arreta-ko teknika berriak, arreta eskaintzen zaien biztanle talde berriak, 65 urtetik gorako biztanleriaren hazkundea, horrek eragiten duen sendagaietako gastuarekin, eta 75 urtetik gorako biztanleriaren hazkundea, orobat, non pertsona pluripatologikoa eta gaixotasun kronikoduna baita nagusi. Eta, hala ere, gastu hori Nafarroako Gobernuarena oro har baino gutxiago hazi da.

- 7. orrialdeko 5. paragrafoan, Oinarrizko Osasun Laguntzako langile kopuruak 2001-2011 bitartean izan duen beherakada, partez behintzat, buruko osasuneko zerbitzuak (2002tik 2010era bitartean, gutxienez) arreta espezializatuko zerbitzuetara atxiki zirelako izan zela esaten da. Buruko osasunaren batetik besterako dantza horrek 1. kapituluako eta kontsulten jarduerari buruzko datu ekonomikoak ere nahasten ditu. Antzera gertatzen da beste autonomia-erkidego batzuetan ere; buruko osasuneko zerbitzuak arreta espezializatuan edo eremu berezi batean kokatzen baitira geroz eta gehiagotan (ikus, adibidez, Kataluniako eta Euskal Autonomia Erkidegoko memoriak). Hori, jakina, oztopo larria da autonomia-erkidegoen artean konparaketa egiteko, eta horrek erakusten du zergatik dagoen horrelako aldea kontsultetako jardueraren, profesionalen ratioen eta 1. kapituluako kostuen artean (arreta espezializatuko zerbitzuen jardueraren ehuneko 10 inguru buruko osasuneko arretari dagokiola kontuan hartzen bada, batez ere).

17. orrialdeko azkeneko paragrafoan esaten da osasun-txartela duten adineko pertsonen portzentajea ez dela aldatu 2001 eta 2011 artean. Nolanahi ere, biztanleriaren hein hori denez osasunaren alorrean gastu gehiena eragiten duena, biztanleriaren parte horrek urte horietan izan duen bilakaera datu baliagarriagoa izango litzateke: 97.737tik 112.060ra, % 15 (ikus 4. taula).

- 21. orrialdean, h) atalean, kontuan hartu beharko litzateke Nafarroan eta Kanarietan egiten diren kirurgien konplexutasuna eta sofistikazioa, Errioxan egiten direnekin alderatzeko (Kanarietako kasuan, hain zuzen, penintsulatik oso urruti baitaude, gainera, beste zentro batzuetara bidali ahal izateko). Adierazle honen balioespen zuzen bat egiteko, kontuan hartu behar da Nafarroan kirurgia anbulatorio handi gehienak San Juan de Dios Ospitalean egiten direla, eta horrenbestez Nafarroako Ospitalegunean egiten den kirurgia konplexu-agoa dela.

- Egiten diren iradokizunei dagokienez, esan beharra dago O-NOZ aipatzen diren ia ildo guztietan ari dela lanean. giza baliabideak, profesionalen parte hartze handiagoa lortzen, itxaro-zerrenden kudeaketa, hitzarmenen kudeaketa, inbertsioen bideragarritasun-planak, eta kostu-sistemak. Proiektu horiek guztiak, eta beste batzuk, Osasun Departamentua bultzatzen ari den Arreta Zerbitzuen Eredu Berrian sartuta daude dagoeneko. Datoren hilabeteetan ezagutaraziko dira eta jarriko dira martxan jarduera-ildo hauetan guztietan garatzen ari diren ekimenak.

Iruñean, 2012ko abuztuaren 24an

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

### **BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTURIKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMANDAKO ERANTZUNA**

Osasuneko kontseilari andreak aurkeztutako alegazioak aztertutik, lehenengo bi alegazioetan aipatzen diren datu batzuk txostenari atxiki zaizkio.

- Zehazkiago adierazi da transferentzia arruntetako gastuen emendioaren arrazoia, lehenengo alegazioko lehenengo paragrafoan adierazten den bezala.

- Bigarren alegazioari dagokionez, berriro erredaktatu da 7. orrialdeko 1. paragrafoa, interpretazio okerrak eragozteko.

Gainerako alegazioetan ematen den informazioari dagokionez, txostenaren ondorioak ezertan aldatzen ez dituen azalpenak direla iritzirik, txostenari atxikitzen zaizkio.

Ohar hauek eginik, behin betikotzat ematen dugu txostena.

Iruñean, 2012ko abuztuaren 29an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

